


## 2. unitate didaktikoa

# Garapen afektiboa



“Barkamena eskatzen diet hurrei liburu hau pertsona nagusi bati eskaintzeagatik. Aitzakia sendoa dut horretarako: pertsona nagusi hori munduan dudun lagunik onena da. Baina beste aitzakia bat ere badut: pertsona nagusi hori dena ulertzeko gai da, haurrentzako liburuak ere bai. Hirugarren aitzakia ere badut: pertsona nagusi hori Frantzian bizi da eta goseak eta hotzak jota ibiltzen da. Beraz, kontsolamendupremia handia du. Arrazoi horiek guztiak nahikoa ez badira, liburu hau, pertsona nagusi hori orain dela asko izan zen haurrari eskaini nahi diot. Pertsona nagusi guztiak, lehenago, haurrak izan dira (baina gutxik gogoratzen dute). Hortaz, eskaintza zuzendu egin nahi dut: Leon Werth-i umea zenean”

ANTOINE DE SAINT EXUPÉRY

## 2.1. Garapen afektiboaren definizioa eta mugak

Garapen afektiboaz pentsatzen dugunean, emozioa, sentimendua, nortasuna, afektibitatea eta antzeko hitzak bururaten zaizkigu. Beraz, garapen afektiboa, emozioen mundua den buruhauste zaila osatzeko pertsona bakoitzak erabiltzen duen eta aipatutako hitzekin estuki erlazionatuta dagoen prozesua dela esan dezakegu.

Unitate honen lehenbiziko partean garapen afektiboaren oinarritzko kontzeptu horiek landuko ditugu eta, ondoren, gai horretaz arduratu diren teoriak eta autoreak (Freud, Piaget eta Wallon) ikasiko ditugu. Atxikimenduari buruzko atal bat ere badago. Atxikimendua funtsezko alderdia da haurraren afektibitateari eta gizarteratzeari dagokienez. Eta bukatzeko, garapen afektiboaren eta garapen kognitiboaren arteko elkarreraginaren zenbait parametro ezarriko ditugu.

## ■ Afektibitatearen eta emozioen oinarri fisiologikoak

Bizitzan zehar, gizaki bakoitzak ezin konta ahala emozio eta sentimendu izaten ditu. Afektibitatea gainerako izaki bizidunengandik bereizten duen funtsezko giza ezaugarria da. Afektuen eta emozioen mundurik ez balego, gizakiaren bizitza ez litzateke den bezalakoa izango, eta arrazoizkoagoa eta, seguruenik, egitura-tuagoa izango litzateke.

Emozioak funtsezko elementuak dira pertsonak bizitzan hartzen dituen erabakietan. Arrazoiak ez da gizakia une jakin batean aukera jakin bat hartzera bultzatzen duen gauza bakarra. Askotan, emozioak eragin erabakigarria du. Hona hemen zenbait kasu, adibide gisa:

- Beldurra ematen dit jaira joateak, inor ez dut eza gutzen eta. Joan egin beharko nintzateke, zeren, agian, jendea ezagutzeko eta lan-harreman interesgarriak egiteko aukera izan baitezaket. Dena den, etxean geldituko naizela uste dut”.



- “Lotsa ematen dit jendaurrean hitz egiteak. Aurre egin beharko nioke, baina, onena, horrelakorik behar ez duen lanen bat bilatzea dela uste dut.”.

Bi kasuetan, erabakia hartu behar duen pertsonak arrazontzeko gaitasuna erabiltzen du, baina planteamendua egiten duenean, erabakia hartzearen ondoriozko emozioak ere kontuan hartzen ditu. Emozioak, beraz, funtsezko alderdiak dira gizakiaren bizitzan.

Sentimendua, afektibitatea, emozioa, pertsonen garapen sozioafektiboari buruzko kontzeptuak dira eta eragin erabakigarria dute pertsonen jokabide eta erabakietan.

## Afektibitatea

Teoria eta autore asko arduratu dira emozioak eta afektibitatea aztertzeaz. Eta guztientzat baliagarria den afektibitatearen definizioa ematea zaila bada ere, zentzu orokorrean, honako hau esan daiteke: afektibitatean gizakiak izaten dituen eta atseginak edo desatseginak izan daitezkeen afektu-egoera edo emozio guztiak biltzen dira.

Beste era batera esanda, afektibitatea gizakiak bere buruarenganako, inguru fisikoarekiko eta, batez ere, gizarte-inguruarekiko (hurbilen dituen pertsonenganako, bereziki) bizi eta adierazten dituen afektu-egoerak dira.

Zenbait teoriak, adibidez, psikoanalisiak, afektibitatea eta nortasuna lotu egiten dituzte, baina beste zenbait ikertzaileentzat, afektibitatea ez da nortasuna zehazten duen alderdi bakarra, nortasun hori eratzeko funtsezko elementua bada ere.

Zenbait teoriak, adibidez, psikoanalisiak, afektibitatea eta nortasuna lotu egiten dituzte, baina beste zenbait ikertzaileentzat, afektibitatea ez da nortasuna zehazten duen alderdi bakarra, nortasun hori eratzeko funtsezko elementua bada ere.

## Emozioak

Emozio hitza latinetik dator eta “astindua” edo “asaldura” esan nahi du. Emozioa kanpoko estimulari erantzuteko sortzen den asaldura-egoera fisiologikoa da.

Emozioa, beraz, estimuluaren ondorioz sortzen den bat-bateko erreakzio fisikoa da. Aldi baterako prozesua da eta, behin hasiz gero, gehiago batera iristen da eta, hortik aurrera, gutxiagotu egiten da agortu arte.

Batzuetan, bizkortze fisiologiko handia sorrarazten duen emozio handiaren ondoren, emozio hori eragin duen estimulua desagertzen denean, kontrako emozioa azaltzen da, honako adibide honetan ikus daitekeenez:

- Illusio handiz, dedikazioz eta pozik, zure bikotekidearentzako ezusteko jaia prestatzen ibili zara. Biharamunean, martxan mantentzen zintuen estimulua (jaia) desagertu denean, izorratuta, desanimatuta eta apur bat hutsik sentitu zara

Emozio anitz daude: poza, tristura, beldurra. Baina, emozio guztiek eragiten dituzten erreakzio fisikoak (bihotz-taupadak azkartzea, tentsio muskularra, amasa azkarra, aurpegiko eta eskuetako tenperatura igotzea...) oso antzekoak dira. Hau da, emozioak desberdinak izan arren, gorputzaren erantzunak ez dira asko aldatzen.

Adibidez, haurtxoa negarrez ikusten dugunean, helarduak izaten dugun erreakzioa asaldatzea eta erne jartzea izaten da. Inoiz haurrik zaindu ez badugu ere, erreakzio hori berezkoa da, eta norbaitek erreakzio hori izaten ez badu, berehala, pertsona horrek arazo larriren bat duela pentsatu ohi dugu

Haurtxoaren negarraren aurrean, beraz, erantzun emozional fisikoa sortzen da eta, erreakzio fisiko horren eraginez, entzuten dugun lehenbiziko aldian, tristura-emozioa sortzen da. Baina haurra ordu batzuk zaintzen eta kontsolatzen ibili ondoren, haur beraren negarrak haserrea (“ea isiltzen den, behingoz”) edo beldurra (“haur honek non edo nongo mina du eta larria izan behar du gainera, horrela negar egiteko”) sorraraz dezake.

Emozioek sorrarazten duten erreakzio fisikoak tentsioa, erne egotea, eragiten du, jarduteko eta, behar izanez gero, arrisku jakin bati aurre egiteko. Beraz, emozioen eginkizunetako bat egokitzea da eta, normalean, jardutera bultzatzen dute.

Baina emozioek eginkizun soziala ere badute. Unitate honetan ikusiko dugunez, emozioak adieraztea, emozioak gordetzea eta beste pertsonen emozioak ulertzea, emozioen eginkizun sozialarekin zerikusia duten garapen afektiboaren alderdi garrantzitsuak dira.

## Sentimendua

Eguneroko bizitzan, sarri, emozio eta sentimendu hitzak ez dira bereizten. Kontzeptu biak estuki lotuta badaude ere, ez dute gauza bera esan nahi.

Emozioa eta sentimendua iraupenaren eta bizitasunaren arabera bereizten dira.

└─ Emozioa laburragoa eta biziagoa da.

└─ Sentimenduak gehiago irauten du eta ez da hain bizia.

Hori, neurri batean, sentimendua pentsamendurekin lotuta dagoelako gertatzen da. Beraz, sentimendua pentsatutako eta sentitutako emozioa da, eta emozio hori sorrarazi duen estimulurik ez dagoenean ere mantendu egiten da. Ezinezkoa da estimulu jakin batek sorrarazten duen erreakzio fisiologiko emozionala kontrolatzea, baina sentimendua aldatu egin daiteke, bizitako emozioarekin lotzen den sentimenduaren arabera.

Adibidez, norbaitenganako erakarpen sexuala eragiten duen hasierako emozioak, pertsona horri buruzko pentsamendu baikorrekin lotzen bada (“pertsona ona dirudi, argia da, neurean antzeko gustuak ditu...”), maitasun-sentimendu iraunkorra sorraraz dezake eta, ondorioz, bikotea era daiteke. Eta sentimendu hori sorrarazi duen pertsona, hau da, hasierako emozioa sorrarazi zuen pertsona, ez dagoenean ere mantendu egin daiteke.

Sentimendua eta emozioa, desberdinak izanda ere, mundu berekoak dira, afektuen mundukoak, alegia. Pertsona bakoitzarengan alderdi askok dute eragina, sentimenduak eta emozioak sentitu eta adierazteko eran, baina, neurri handi batean, sentitzeko eta adierazteko era hori haurtzaroan sortzen hasten da.

## 2.2. Garapen emozionala

### ■ Sarrera

Informazioa prozesatzea, komunikazioa garatzea, atxikimendua antolatzea, moralki garatzea eta gizarte-  
-ezagutza, besteak beste, eboluzio-prozesuak dira. Emozioek eragina dute eboluzio-prozesu guztietan, eta bizitza osoan zehar hartzen ditugun erabakien oinarri nagusia dira.

Garapen emozionala edo emozioen garapena aztertzeko, zenbait alderdi kontuan hartu ohi dira, hots: emozioen adierazpena, nor bere emozioez jabetzea, emozioak ulertzea, emozioak erregulatzea eta enpatia (inoren emozioak norbereganatzea). Alderdi horien arabera eboluzio-aldaketak detektatzea eta azaltzea funtsezkoa da nortasunaren garapena ulertzeko.

Psikologia ebolutiboan, lehen, garapen emozionala ez zen bereiz aztertu ohi. Joera nagusia arrazionalista (arrazonamenduaren eta jokabide antolatuen arabera) zenez, emozioak kognizioaren (ezagutzaren) mendeko gisa aztertu ohi ziren eta nortasunaren garapenari dagozkion beste kognizio-prozesu garrantzitsuagoen adierazgarritzat jotzen ziren. Adibidez, haurrak harridura adierazten duenean, ikuspegi arrazionalistaren arabera, itxaropenak sortzeko gai denaren seinaleztat jotzen da, eta amiltzeko beldurra adierazten duenean, sakontasuna hautemateko gai dela ondorioztatzen da. Emozioak eurak eta emozioen kausak ez ziren berez aztertu ohi.

Orain, psikologia ebolutiboan garapen emozionalaren ikerkuntza berpiztu egin da, eta ikuspegi etiologikoa (kausak aztertzen dituen) da nagusi. Gizaki arruntaren eboluzioan, askotan, emozioa arrazoi bakoitzaren garrantzitsuagoa izan ohi da eta, dagoeneko, emozioen kausak aztertzeko teknikak eta prozesuak asko aurreratu dira. Horrez gain, psikologiak egin duen emozioen azterketa berria ere kontuan hartu behar da. Jarraian, azterketa berri horren oinarriak ikusiko ditugu.

Gaur egun, ikertzaile teorikoak, ikuspegi desberdinak badituzte ere, bat datoz jokabidearen antolatzaile eta eragile gisa eta komunikazio-seinale gisa emozioek duten garrantzia azpimarratzeko orduan. Emozioak, dagoeneko, ez dira barne-esperientzia subjektibo gisa aztertzen; aitzitik, emozioek jarduera zehatzak eragiten dituztela pentsatzen da.

Campos-ek eta laguntzaileek (1983; 1989) diotenez, emozioak, barne-egoera psikikoak izateaz gain, gertaera jakin batzuei aurre egiteko erreakzio-ereduak ere badira. Poztasunak, interesak edo haserreak jardutera bultzatzen gaituzte eta tristurak, adibidez, jarduera eragozten du. Beraz, barneko esperientzia psikikoez gain, emozioak **inguruarekiko harreman garrantzitsuak (barnekoak zein kanpokoak) aldatzeko (has-**

**teko, mantentzeko edo eteteko) prozesuak** direla esan daiteke (Campos eta laguntzaileak, 1983).

Gertaeraren garrantzia zenbait alderdiren arabera izan daiteke. Alderdiok honako hauek dira:

- a) *Estimuluak atseginak edo desatseginak izatea.* Estimuluek, besteak beste, mina, lasaitasuna eta gozamina eragin dezakete eta, gertaera are garrantzitsuagoa izango da eragindako emozioa biziagoa den heinean.
- b) *Besteengandik jasotzen den komunikazioa.* Gizakiok, enpatiaren eta gizarte-erreferentziaren bidez, afektiboki inplikatu egiten gara beste emozioetan.
- c) *Pertsonak dituen helburuak.* Esperientzia emozionala asko, gure helburuen, nahien edo kezken arabera garrantzia izango dute. Jostailua, harreman berria, laneko helburua edo antzeko helburu jakin bat lortzen edo aurreikusten dugunean, poza adierazten dugu; helburua lortzeko oztopoak ditugunean, haserrea adierazten dugu eta beste pertsona edo objektu batekin harremanik lortu ezin dugula hautematen dugunean, tristura adierazten dugu.

*Zeratarako balio dute emozioek?* Emozioen eginkizuna bikoitza da: alde batetik, sentikortasuna adierazteko eta, bestetik, egoera jakin bati erantzuna emateko erabili ohi ditugu.

Frijda-ren iritziz (1994), emozioek, gure bizitzan egoera garrantzitsuak zein diren esaten digute. Sentikortasun emozionala pertsonaren seinale-sistema da. Emozioa barneko estimulu indartsua da, eta estimulu horrek, jokabidea eta ezagutza antolatzen dituen sistemari egoera jakin batek helburuak lortzea bideratzen edo eragozten duen esaten dio. Emozioa askatzen denean, egoeraren garrantzia areagotu egiten da eta ondoriozko jarduera helburuaren eta egoeraren arteko loturaren arabera izango da. Helburua lortzen edo aurreikusten denean sortzen den poztasunak, ekiteko jarduera eragiten du. Itxaropena, haserrea edo frustrazioa, helburuaren eta helburua lortzeko jardueraren arteko lotura adierazten duten emozioak dira eta, lotura horren arabera, ekiteko edo bertan behera uzteko energia emango digute.

Erantzun emozionalak jokabidea gidatu eta antolatu egiten dute eta ezinbestekoak dira, haurtzaroen batez ere, komunikazio-seinale gisa. Ikus ditzagun esandakoaren zenbait adibide:

- *Poztasuna.* Ekintzarekin jarraitzea eragiten du, oroimena eta gauza berriak ikasteko gaitasuna bizkortu egiten ditu, frustrazioari aurre egiten edo frustrazioa onartzen laguntzen du, eta, komunikazio-seinale gisa, inguruarekiko harremana ezartzen hasteko edo mantentzeko erabiltzen den gizarte-mezua da.

- **Haserrea.** Irainduta sentitzen garenean, edo helburuak lortzeko oztopoak ditugula konturatzen garenean sortzen da haserrea, eta oztopoak edo frustrazioaren iturriak deuseztatzeko, helburua lortzeko bidea ezartzeko, iraintzailearen jokabidea aldatzeko eta zapalketari eusteko baliabideak antolatzeke erabili ohi dugu; seinale gisa, gerta daitekeen erasoaren mehatxua komunikatzen digu.
- **Tristura.** Eginkizun garrantzitsuak ditu, pertsona jakin batekin harremanik ezin dela lortu edo egoera jakin bat ezin dela mantendu hautematen denean. Eragiten duen jarduera ekintza bertan behera uztea da. Jarduera-faltak galdutako pertsonarenganako edo objektuarekiko atxikimendua desagerarazten du. Pasibotasunaren bidez, energia gorde egiten da, beste harreman bat lortzen saiatu ahal izateko. Seinale gisa, babesa eskatzeko erabili ohi da.
- **Beldurra.** Mehatxua hobeto identifikatzen laguntzen du. Beldurra eragiten duen gertaeraren aurka babestera bultzatzen gaitu, edo gertaera horri aurrea hartzeko prestatzen gaitu. Komunikazioari dagokionez, aurpegiaren beldur-espresioaren bidez,

besteak ohartarazi egiten ditugu, egoera eragotz dezaten edo lagun diezaguten. Halaber, seinale gisa, eraso moteltzeko asmoz, bestearen mende gaude-la adierazteko ere erabili ohi dugu.

Aipatutako emozio horiek Campos-ek eta laguntzaileek (1983) egindako 3.1. taulan, ikus daitezke, helburuen, hautemateko eraren, eragiten duten jardueren eta eginkizunen arabera antolatuta.

Aipatutako emozio horiek gizarte-harremanak erregulatzeko erabili ohi ditugu, hau da, besteengana hurbiltzeko edo besteen laguntza bilatzeko edota eraso egiten digunari aurre egiteko. Baina badira beste zenbait emozio, besteak beste, lotsa, harrotasuna edo erruduntasuna, norbere burua aztertzeaz gain, besteak aztertzeke ere erabili ohi ditugunak. Emozioon eginkizun nagusia gizarte-testuinguruko baloreak adieraztea eta mantentzea da. Lotsaren eginkizuna besteek norberarenganako duten errespetua eta afektua mantentzea eta autestimua babestea da. Egoera jakin baten ondoriozko jokabidea, norberarentzat zein besteentzat traketza denean, ohikoa ez denean edo besteentzat zalantzazkoa denean, lotsa sortzen da, eta egoeraren ondoriozko jokabideak gaitasuna, nagusitasuna eta

### 3.1. TAULA

Zenbait emozio-familiaren ezaugarriak

| Emozioa          | Helburua   | Hautemateko era   | Eragiten duen jarduera                            | Eginkizuna   |
|------------------|--|---|---|--|
| <b>Poztasuna</b> | Edozein helburu garrantzitsu.  | Lor daitekeela aurreikusten da.   | Hurbiltzea. Jarduerari energia ematen dio.        | Arrakasta lortzeko estrategiak indartzea, trebetasun berriak bilatzen laguntzea, erronka berriei aurre egiten laguntzea, inguruarekiko harremana hasteko edo mantentzeko gizarte-mezua da. |
| <b>Haserrea</b>  | Edozein helburu garrantzitsu.  | Oztopoa dagoela hautematen edo aurreikusten da.                                     | Oztopoa kentzea.                                  | Helburua lortzeko bidea ezartzea, besteen jokabidea aldatzea. Mendeku hartzea.   |
| <b>Tristura</b>  | Pertsonarenganako edo objektuarekiko lotura mantentzea.                  | Lortezina dela hautematen da.   | Bertan behera uztea.                              | Energia gordetzea, baliabideak berrantolatzea, helburu eskuragarriagoak lortzeko, besteen laguntza sorrarazten du.   |
| <b>Beldurra</b>  | Niaren osotasuna mantentzea: bizirik irautea eta autoestimua mantentzea. | Babesteko jarduera martxan jartzen ez bada, helburua ez dela lortuko hautematen da. | lhes egitea.                                      | Bizirik irautea. Mina saihestea. Autoestimua mantentzea. Besteak ohartaraztea, egoera eragotz dezaten edo lagun diezaguten.  |
| <b>Interesa</b>  | Zeregin edo egoeraren batean inplikatzeko.                               | Interesa sorrarazteko informazioa garrantzitsua izan daitekeela hautematea.         | Hartzaileak orientatzea. Informazioa prozesatzea. | Ingurutik informazioa ateratzea. Harremana edo kontaktua hasteko gogoia adierazteko gizarte-seinalea da.   |

adostasuna adierazten dituela hautematen dugunean (geuk zein besteek), harrotasuna sortzen da. Bi emozio horiek eragiten dituzten jarduerak ere kontrakoak dira; hots, lotsa ezkatzea, ihes egitea edo besteengandik aldentzea eragiten du, eta harrotasunak jarrera kanporakoia eta lorpenak azaleratzea eragiten du. Hala ere, bi emozioek eginkizun komuna ere badute, hau da, sozialki egokia den jokabidea mantentzea. Erruduntasuna, pertsonak bere jokabidearen bidez besteei kalte egiten diela pentsatzen duenean sortzen da eta egindako kaltea konpontzen saiatzea eragiten duen emozioa da.

Horrez gain, emozioen eginkizuna, unean uneko gertaerarekin dugun harremanaren arabera izateaz gain, egoera hori aurreikustea eta egoerari aurre hartzea ere bada. Pertsona jakin batekin dugun harremana galduz gero sentituko genukeen tristura, egoera hori gertatu baino lehen adierazten badugu, pertsona horrekin dugun harremana zaintzera eta banatzea saihestera bultzatuko gaitu. Erruduntasunaren eta lotsaren eginkizun nagusia, erregulatzailer sozialak diren aldetik, batez ere babestea da. Aldez aurretik, egoera jakin batek erruduntasuna edo lotsa sentiaraziko digula hautemanez gero, behar diren babes-neurriak hartuko ditugu eta besteenganako errespetua mantenduko dugu eta norberaren edo taldearen ohiko joerak onartu egingo ditugu

Hala ere, emozio guztiak ez dira egoerara moldatzeko erabiltzen. Gerta daiteke pertsonaren helburuak eta emozioen eginkizuna bat ez etortzea, edota egoera aztertzeko zailtasunak izatea eta, ondorioz, oker jardutea. Adibidez, fobiaren bat duen pertsonak, egoera txarto aztertzeagatik, arriskuari aurre hartzen dio eta aurre egiteko baliabiderik ez duela izango hautematen du, edo pertsona erasokorrak besteek kalte edo min egin nahi diotela hautematen du. Emozioa eta dago-kion eginkizuna bat ez etortzearen arrazoia, askotan, emozioen indarra, iraupena edo adierazpena erregulatzeko gai ez izatea izan ohi da.

## Emozioen bidez garatzen diren alderdiak

Campos-ek eta laguntzaileek (1983) diotenez, zenbait emozio (poztasuna, tristura, haserrea, beldurra, interesa edo ustekabea) bizitza osoan zehar mantentzen dira eta emoziook aldaketa garrantzitsuak eragingo dituzte bizitza emozionalaren hainbat arlotan.

Garapen emozionalean emozioek honako alderdi hauek aldatzen dituzte:

*Berariazko helburuak eta jokabideak.* Zazpi hilabeteko haurri besoa mugitzen uzten ez badiogu, haurrak amorrua adieraziko du; pertsona helduak, norbaitek lanean zerbait lortzea eragozten dionean edo gizarte-harremanak oztopenen dizkionean, haserrea adieraziko du. Kasu bietan, helburuak desberdinak dira eta ondoriozko jarduera ere, seguru-erik, desberdina izango da, baina haurrak zein helduak oztopenen batek helburua lortzea eragozten diotela hautematen dute eta emozioek biengan jarduera bera eragingo dute, hau da, jarduera blokeatzen duten oztopenak kentzea.

*Emozioak adierazteko era.* Hasieran, emozioak adierazteko era familia-testuinguruak modulatu du eta, gero, norbere gisakoek modulatu dute. Ez dira ahaztu behar, garapenean sortzen diren beste zenbait faktore garrantzitsu, zeren haurrak, hitz egiteko gaitasuna lortzen duenean, hizkuntzaren bidez, sentimenduak adierazteko aukera berriak sortzen baititu.

*Gizartearekiko harremanak ezartzen dituzten emozioak.* Lotsa, erruduntasuna eta harrotasuna bizitzako bigarren eta hirugarren urtera bitartean sortzen dira eta garrantzi handia dute garapen emozionalean.

*Ulermen emozionala.* Haurrak beren emozioez eta emoziook eragiten dituzten arazoiez jabetzeko eta besteen emozioak ulertzeko gaitasuna garatzen dute. Haurtzaro osoan zehar gertatzen den prozesu luzea da. Haurra aurpegi-espresioak ulertzen hasten da eta besteen emozioak, nahien, sinesmen, alde aurretiko esperientzien edo nortasunaren arabera, besteen emozioak ondorioztatzen iristen da.

*Enpatia.* Besteen emozioak norbereganatzeko erreakzio afektiboa da. Funtsezko baliabide afektibo hau ere garatu egiten da adinarekin, eta besteen sentimenduak ordezkatzeko jokabidea eta ondoriozko jardura aldatu egiten dira, norberaren esperientzia emozionala, gaitasun kognitiboak eta emozioak erregulatzeko gaitasuna garatzen den heinean.

*Emozioak erregulatzeko gaitasuna.* Zaintzaileek emozioak erregulatzeko ematen dituzten baliabideen bidez, eta haurrak lortzen dituen ezagutza-aurrerapenen bidez, emozioen indarra, iraupena eta emoziook adierazteko era modulatzeko jokabide-baliabideak eta baliabide mentalak garatzen dira.

## Garapen emozionalean eragina duten faktoreak

Garapen kognitiboaren bidez (ezagutzaren garapenean bidez), helburu berriak sustatu egiten dira, helburuak hautemateko pertzepzio-maila konplexuagoak lortzen dira eta emozioak erregulatzeko gaitasuna areagotu egiten da. Garapen kognitiboak eragin handia du emozioak ulertzeko prozesuan. Beraz, garapen emozionaleko eboluzio-aldaketek garapeneko beste prozesuekiko elkarreragina dutela kontuan hartu behar da eta aldaketok elkarrekin lotuta daudela ulertu behar da.

Garapen emozionalean izaten diren aldaketa batzuk zerebroa eta nerbio-sistema garatzen direnean sortzen dira, eta beste batzuek mugimenduen garapenearekin, hizkuntzaren garapenearekin edo atxikimendu-prozesuekin dute zerikusia.

Bestalde, emozioak harremanen arabera dira eta gizartearekiko dugun elkarreraginaren arabera garatzen dira. Emozioak gizarteratu egiten dira. Gizarte-testuinguruak, emozio jakin batzuk izateko eskaintzen dituen aukeren arabera eragiten du; emo-

zioen esanahia eta helbururen edukia ezartzen ditu; emozioak adierazteko arauak (adierazi behar diren ala ez, noiz eta nola adierazi behar diren) eta sentimendu-  
-arauak (irizpide moralen, klinikoaren edo egoeraren araberrako baldintza jakin batzuetan zer sentitu behar den) ezartzen ditu.

Enpatiari eta emozioak ulertzeari eta erregulatzeari dagokionez, aurrerapen kognitiboek eboluzio-aldaketa garrantzitsuak eragiten badituzte ere, gaitasun horiek pertsonen arteko harremanen arabera sortzen eta garatzen dira.

Orain arte emozioen dimentsioen garapena aztertu dugu, hau da, haurrek euren emozioak adierazteko, ulertzeko eta erregulatzeako eta besteen emozioak ezagutzeko eta ulertzeko duten gaitasuna eta enpatiaren garapena ikusi ditugu. Jarraian, izaerak eta gizarateratzeak gizabanakoen duten eragina aztertuko dugu.

## ■ Garapen emozionala lehen haurtzaroan

### Adierazpen emozionala lehen haurtzaroan

Gurasoei euren haurtxoek emozio zehatzak izaten eta azaltzen dituzten ala ez galdetzen badiegu, denek baietz erantzungo digute. Johnson-ek eta laguntzaileek (1982) egindako azterketan, hilabeteko haurrek haserrea, beldurra, harridura, interesa, poztasuna eta tristura (gutxiagotan) adierazten zituztela onartu zuten ama gehienek. Horren arabera, zenbait galdera sortzen zaizkigu: *Gurasoen gehiegizko interpretazioa al da? Haurrak aurpegian tristura-espresioa azaltzen duenean, espresio horrek benetan adierazten al du haurrak egoera subjektibo hori bizi duela?*

Lehenbiziko galderari dagokionez, aipatutako azterketa horretan, amak zehatzak izan ziren haurrengan ikusi zituzten emozioei zegozkien aurpegi-ezaugarriak azaltzeko orduan. Gurasoek, haurrei begiratzeko iker-tzaileek baino denbora gehiago badute ere, gehiegizko interpretazioaren hipotesia ezin dugu albo batera utzi. Izard-ek (1982) egin zuen azterketan, haurrek hainbat egoeratan adierazitako aurpegi-espresioak filmatu zituen eta, gero, beste ikertzaile batzuei erakutsi zizkien, eta gehienak ados zeuden emozioen agerpe-na kronologikoki zehazteari dagokionez. Haurrek, -jaiotzen direnetik, irribarre egiten dute eta, aurpegi-espresioaren bidez, interesa, nazka eta egonezina adierazten dituzte; bigarren eta laugarren hilabeteen artean, haserrea, harridura eta tristura agertzen dira, eta beldurra bosgarren hilabetetik aurrera hasten da nabarmentzen (hala ere, hilabete duenean ere, haurrak, bat batean besoetatik askatu eta erortzeko keinua egiten zaionean, beldurra adieraz dezake).

Bigarren galderari dagokionez, kontuz ibili behar dugu, zeren, espresioaren eta emozioen arteko zuzeneko lotura

ez baitago frogatuta. Lehenbiziko bi hilabeteetan, behintzat, haurren espresio emozionalak ez dira egoerara edo estimulura sistematikoki egokitzen. Haurrek lo dudenean ere irribarre egiten dute; harridura adierazten dute gauza berrien zein ohikoen aurrean, eta mugimenduak eragozten bazaizkie, haserrea adierazi ohi dute, baina tristura ere adieraz dezakete.

Camras-ek (1994) bere alabaren espresio emozionala aztertu zuenean egiaztatu zuenez, bigarren hilabetetik aurrera, haurrak haserre-espresioa eta haserreak eragindako mugimenduak (mugitzen uzten ez zion oztopoa kentzea) lotu egiten zituen, baina jokabideak ez zituen egoeretara sistematikoki egokitu hiru hilabete izan arte.

Campos-ek (1983) dioenez, emozioak eta espresioak lotzeko, zenbait egitura neurologikok heldu egin behar dute. Beste autore batzuen iritziz, sistema emozionalako osagaiak (aurpegi-espresioa, jokabideak, pertzepzioa, etab.) bereiz gara daitezke eta, garapeneko une jakin batean, sistema antolatuan integratzen dira.

Camras-en iritziz (1994), tristura eta haserrea adierazten duten aurpegi-espresioak goiz agertzen dira hasieran, dagozkien emozioen adierazle fidagarriak ez badira ere. Sistema emozionalaren osagaien bat maila kritikora iristen denean, haserre- edo tristura-emozioa eta dagokion aurpegi-espresioa bat etortzen dira

Hala ere, emozioen eta egoeren arteko lotura zehaztea baino interesgarriagoa da espresio horiek hasieratik duten komunikatzeko balioa azpimarratzea. Campos-ek eta laguntzaileek diotenez (1983), adierazpen horiei "espresio emozionalak" deitzea baino egokiagoa da "seinale emozionalak" deitzea. Aurpegi-egitura horiek atxikimendu-irudien jokabidea erregulatzen duten seinale indartsuak dira eta haurrak premiak asetzeko eta gizarte-elkarreragina erregulatzeo erabili ohi ditu: Negarraren eta egonezinen bidez, haurrak, zaintzaileak erakartzen ditu, jaten eman diezaioten, mina edo egonezina eragiten duen kausa desagerraraz dezaten edo konpainia egin diezaioten. Interesa eta poztasuna adierazten dituzten seinaleen bidez, haurrak harremanetarako prest dagoela adierazten die gurasoei, ondo egiten ari direla esaten die eta gurasoak kontaktua luzatzera bultzatzen ditu. Haurrak, haserre-seinaleen bidez, asaldatzen duen jarduera uztera bultzatzen du zaintzailea. Eta tristuraren eta beldurraren bidez, haurrek babestea eta kontsolatzea behar dutela adierazten dute.

Bizitzako lehen urteak pasa ahala, emozioak argiago bereizten dira, hautakorragoak izaten dira eta azkarago, sendago eta luzeago bihurtzen dira. Ikus ditzagun esandakoaren zenbait adibide: haurrak, bi hilabeteekin, mugimenduak eragozten zaizkionean haserrea adierazten badu, mugimenduak eta jokabidea planifikatzeko gaitasuna garatzen duenean, bistan duen helburua lortzea eragozten zaion bakoitzean, haserrea adieraziko du; horregatik, 9-14 hilabeteekin haurren haserre-espresioak areagotu egin ohi dira. Arrazoia ulertzen denean, tristura edo estutasuna haserre bihurtzen da frustrazioa eragiten duen pertsonarenga-

nako. Aurrea hartzeko gaitasunaren bidez, haurra itxaropenen arabera erantzunak adierazten hasten da, eta, amak kalera irteteko zapatak janzen dituenean, negar egiten du eta tristura adierazten du. Hiru hilabeterekin, haurrak atxikimendu-irudiarekin duen harremana eteten denean, tristura adierazten badu, zortzi hilabete dituenean, hau da, atxikimendua sendotzen denean, erantzuna askoz ere biziagoa izango da atxikimendu-irudia aldentzen denean. Beldurra sorrarazten duten egoeretan, atxikimenduak eta borondatezko mugimenduak ere aldaketak eragiten dituzte: amiltzeko beldurra eta ezezagunenganako beldurra agertzen dira, eta erreakzio horiek areagotu egiten dira hamabi hilabeterekin.

## Emozioez jabetzea eta enpatia lehen haurtzaroan

Haurtxoak, bizitzako bigarren hilabetearen inguruan, beste espresio emozionalak bereizten hasten dira, baina ez dago argi egiazko esanahi emozionalarekin bat datozenik. Dena den, laugarren eta zazpigarren hilabetera bitartean, esanahi emozionala eta aurpegi-espresioak lotzen hasten dira. Emozioak egoki interpretatzeko gaitasuna beste espresio emozionalari egoki erantzuten dienez sortzen da. Poztasunari erantzuteko, poztasun-espresioa adierazten dute, mugitu egiten dira eta maizago begiratzen dute; haserreari erantzuteko, haserre-espresioa adierazten dute eta geldirik egoten dira; eta amak tristura adierazten duenean negar egiten dute eta xurgatzeko keinuak eta mastekatzeko mugimenduak egiten dituzte. Erantzun horiek ez dira imitazio hutsa, zeren amak, haserre dagoenean eta pozik dagoenean antzeko mugimenduak egin arren, ama haserre dagoenean haurrak gutxiago mugitzen baitira. Beraz, adin txiki horietan, amaren emozioei erantzuteko haurrak izaten dituen erreakzioak hautatu eta moldatu egiten ditu. (Haviland eta Lelwica, 1987; Termine eta Izard, 1988).

8-10 hilabeterekin, emozioak interpretatzeko gaitasuna argi ikusten da. Haurrek, zalantza egoerari aurre egiteko, amari begiratzen diote eta amaren espresioa *gizarte-erreferentzia* gisa erabili, egoera aztertu eta jokabidea erregulatu egiten dute. Familiako espresio baikorrek, objektua edo egoera atsegina dela adierazten dute; beldurra, mina edo nazka adierazten duten espresioek egoera hori saihestu egin behar dela adierazten dute. Adibidez, atxikimendu-irudiak pertsona ezezagunarenganako edo objektu berriarekiko jarrera baikorra badu, haurraren ezezagunenganako beldurra asko murriztuko da, eta nazka edo beldurra adieraziz gero, haurrak ihes egingo du. Amiltzeko beldurrari dagokionez, amak poza edo interesa adierazten badu, haurra ausartu egingo da amildegia (hutsartea) zeharkatzen, baina amarengan beldurra edo haserre hautematen badu, ez da ausartuko. Amak tristura adierazten duenean, zenbait haur ausartu egiten dira amildegia zeharkatzen, zalantza handiekin bada ere.

Gizarte-erreferentzia erabiltzeak, haurrak emozioak antolatzen egin ditzakeela adierazten digu. Zaintzaileek, adierazpen emozionalen bidez, haurren arreta estimulu eta egoera jakin batzuetara erakarri ohi dute, eta emozio ho-

rien informazioa erabiltzea ezinbestekoa da haurrentzat, ingurune fisikoa eta soziala ulertzeko. Haurrak aske mugitzeko gaitasuna lortzen duten garaian hasten dira gizarte-erreferentzia erabiltzen, eta hori ingurua aztertzearen ondoriozko arriskuetatik babesteko berezko egokitzapen-estrategiatzat jo daiteke.

Haurrek, beste emozioak ulertu eta interpretatzeko gain, gai dira besteekin egoera afektiboa konpartitzeko. Enpatia, hau da, beste emozioak bereganatzeko gaitasuna, oso garrantzitsua da haurren garapen emozionalean, zeren oso baliagarria baita pertsonen arteko harremanei eta gizarteratzeari dagokienez.

Hoffman-en iritziz (1981) enpatia, oinarri biologikoa duen erantzun unibertsala da. Gurasoek eta ikertzaileek frogatu dutenez, haurrek negar egiten dute alboan dituzten haurrek negar egiten dutenean, baina grabatutako beren negarra entzuten dutenean ez dute negar egiten (Martin eta Clarck, 1982). Sagi eta Hoffman-entzat (1976) beste negarri negarraz erantzuteko erreakzio horrek, egonezin enpatiko primitiboa adierazten du. Geroago (10 hilabeterekin), haurrak adierazpen emozionalak ulertzeko gai izaten diren heinean, beste egonezinez jabetzeko, haien keinuak eta aurpegi-espresioak imitatzen dituzte, baina erantzun globala da, zeren haurrak ez baitute beste eta bere sentimenduak argi bereizteko gaitasunik. Bigarren urtearen erdialdean, beren burua eta bestea bereizten hasten dira eta benetako erantzun enpatikoak sortzen dira, zeren haurrek, kontsolatzeko asmoz, bestea ukitzen edo lepoan jotzen hasten baitira.

Pertzepzio- eta ezagutza-prozesuek garapenean duten garrantzia ukatu gabe, Lopez-ek dioenez (1997), atxikimendu-harremanaren bidez, haurrek garatzeko aukerak sortzen dituzte. Atxikimendu-harremanean sortzen den elkarreraginak imitazio edo elkarrizketa hutsa baino zerbait gehiago den sintonia-prozesua sorrarazten du. Harreman hori testuinguru ezin hobea da haurrak emozioak adierazten, interpretatzen eta konpartitzen hasteko. Lan askotan frogatu denez, atxikimenduen segurtasuna eta enpatia estuki lotuta daude (Ortiz eta beste, 1993; López eta beste, 1998).

## ■ Lehen haurtzaroaren eta bigarren haurtzaroaren arteko zubia

Bigarren eta hirugarren urteen bitarteko etapa oso garrantzitsua da garapen emozionalean. Euren buruaz jabetzen diren heinean, egoera emozionalak bereizten hasten dira. Halaber, jokabidea erregulatzeko garrantzitsuak diren gizarte-harremanak ezartzeko emozioak (erruduntasuna, lotsa, harrotasuna) ere etapa honetan sortzen dira. Azkenik, garai honetan sortzen diren hizkuntza eta joko sinbolikoak ere oso garrantzitsuak dira norberaren zein beste emozioak ulertu ahal izateko.



## Norbere burua eta kontzientzia hartzea

Lewis-ek dioenez (1994), “norbere buruaren” kontzeptua garatzeak, garapen emozionaleko aurrerapen garrantzitsuenetakoa sorrarazten du, hots: *esperientzia emozional subjektiboa*. Lehen haurtzaroan haurrak egoera emozionalak bizi eta adierazi egiten ditu baina, etapa honetan, horrez gain, kontzientzia hartzen hasten da, eta egoera eta adierazpen emozionalak interpretatzeko eta ebaluatzeko gai da. Barne-prozesu gisa, esperientzia emozionala hitzen bidez adierazten hasten da: “triste nago”, “pozik nago”, “beldur naiz”. Kontzientzia hartzeko, haurrak, lehenbizi, bere burua objektiboki ezagutzeko eta ebaluatzeko gai izan behar du. “Triste nago” esateko, haurrak tristura deritzon egoera emozionala bizitzen ari dela jakin behar du.

Lewis-en iritziz (1994), norbere buruaren garapenean izaten diren ezagutza-aldaketak dira bizitza emozionalan aurrerapen hori eragiten dutenak, hala ere, ez du ukatzen gizarteratzeak duen eragina. Esperientzia emozional subjektiboa sortzeko, norbere burua besteengandik bereiztea ezinbesteko baldintza bada ere, ezin da ukatu familia-testuinguruak duen garrantzia, zeren gurasoak eta zaintzaileak baitira emozioei esanahia ematen dietenak. Kontzientzia subjektiboa gizarteratzearen ondoriozkoa da eta estuki lotuta dago hizkuntzarekin. Gurasoek haurrari bere jokabidea ulertu dutela jakinarazteko, adierazpen emozionala errepikatu egiten dute (aurpegi-espresio berarekin erantzuten diote) eta, hitz eginda, egiaztatu egiten dute (Haserre zaude, ezta? Beldur zara, laztana?). Horrela, guraso-

ek, haurrak kontzientzia har dezan ezinbestekoak diren erantzun emozionalen eta egoera subjektiboen arteko loturak eskaintzen dituzte.

Haurra bere egoera emozionalen kontzientzia hartzen hastea funtsezko prozesua da, zeren, horrela, egoera emozionalak ez larritzea eta gainezka ez egitea lortzen baitu. Ez da gauza bera haserre egotea eta haserre gaudela jakitea.

## Hizkuntza eta esperientzia emozionala

Hizkuntzaz jabetzeak pertsonen arteko harremanak eta esperientzia emozionala aldarazten du. Adierazteko tresna berri horren bidez, haurrak, emozioak adierazteko, zuzeneko adierazpenak gero eta gutxiago erabili ohi ditu eta hizkuntza gero eta gehiago erabili ohi du. Horren ondorioz, gero eta gutxiago negar egiten du. Hizkuntzaren bidez, haurra, lehen orokorrak ziren emozioak, zehazten hasten da eta, halaber, lehenago izan dituen egoera afektiboak azaldu eta ulertu egin ditzake.

18 hilabetetik aurrera haurrak besteen emozioez eta egoera afektiboez galdetzen eta eztabaidatzen hasten dira, batez ere, euren jokabidea kontrolatu ahal izateko. Halaber, hizkuntzaren bidez, haurra besteen egoerak alda ditzakeela (besteak kontsolatzeko edo dibertitzeko gaitasuna du) eta gizarte-harreman estuagoak sor ditzakeela konturatzen da.

Familia guztietan gurasoek ez dute maiztasun beraz emozioei buruz hitz egiten. Judy Dunn-ek eta laguntzaileek (1987; 1988) familia-esparruan egindako ikerkuntzaren bidez frogatu dutenez, gurasoekin emozioei buruz hitz egiten duten hurrek, gero, gaitasun handiagoa dute.

## 2.3. Teoria argitzaileak

### ■ Piaget eta garapen afektiboa

**Jean Piaget** Suitzan jaio zen 1896an eta 1980an hil zen. Biologia-ikasketak egin zituen eta zoologia espezializatu zen. Gero, psikopatologiaz eta *Sigmund Freud*-en teoriak arduratu zen, baina Piaget-en psikologia-lanak bideratu zituen sakoneko auzia epistemologia (ezagutzaz arduraztzen den filosofiaren adarra) izan zen.

#### Giza ezagutza

J. Piaget-en asmoa ezagutza zer den eta gizakiak ezagutza nola bereganatzen duen jakitea izan zen. Piaget-en azterketek eta ikerkuntzek, gizakia hain baliagarria ez den intuiziozko ezagutzatik, baliagarriagoa den ezagutza zientifikora nola pasatzen den jakitea dute helburu. Piaget-ek arrazoizko pentsamendua oinarriko kontzeptuak bizitzan zehar nola sortzen eta garatzen diren azaltzen du.

Egia esan, ezagutzaren garapenari buruzko Piaget-en teoriak, ezagutzaren jabetzaz arduratzeaz gain, giza garapenari buruzko teoria orokorra izan nahi du. Hau da, Piaget-entzat, gizakiaren garapen osoa (garapen afektiboa barne) ezagutzaren garapenaren mende dago eta horren arabera azaltzen da. Alderdi hori kontuan hartuta, atal honetan, Piaget-en teoriaren oinarriko ideiak azalduko ditugu.

Biologia-prestakuntzan oinarrituz, Piaget-ek izaki bizidun guztiek bizi diren ingurunera moldatzeko duten joeraren ideia hedatu egin zuen. Piaget-en iritziz, ezagutza organismo konplexuak (gizakiak) ingurune konplexura biologikoki moldatzeko erabiltzen duen era da. Moldaketa hori ez da pasibotasunarekin nahastu behar.

Moldatu ahal izateko, gizakiak jardun egin behar du, zeren errealitatea ezagutzea ez baita den bezalakoa kopiazea; aitzitik, ezagutza gizaki bakoitzak, bizi den inguruarekiko elkarrekintzen bidez, egiten duen errealitatearen barne-erakuntza da.

Errealitate bera (adibidez, behia), ez dute berdin erakitzen Pablok, 3 hilabeteko haurrak, eta Jonek, 2 urteko haurrak. Pablontzat, behia bistatik agertzen eta desagertzen den zerbait baino ez da eta ez daki bere buruaren parte den edo bereizia eta bere buruarengandik aldentzen den zerbait den. Jonentzat, ordea, behia lau hanka eta buztana dituen eta "muuu" egiten duen izakia da, eta ondo bereizten du txakurrarengandik, katuarengandik edo zaldiarengandik.

Garrantzitsua da aipatzea, gizakiak inguru fisikoarekiko zein gizarte-inguruarekiko harremanak ezartzen dituela. Piaget-ek, beste autore batzuek ez bezala, gizakiaren garapenari dagokionez, inguru fisikoko objektuekiko harremanak erabakigarriagoak direla uste du.

Piaget-entzat, errealitatea ezagutzeko, gizakiak eragina izan behar du errealitate horretan eta errealitate hori manipulatu eta eraldatu egin behar du. Haurrak objektuak erabili eta ukitu egin behar ditu, zeren horrelaxe ezagutzeko baititu.

Piaget-en argumentuekin jarraituz; adibidez, haurrak elikagai berria jaten duenean, janari horri eskuekin ukitu egin behar dio eta janariarekin jolastu egin behar du, batzuetan gurasoentzat eta hezitzaileentzat gustukoa ez bada ere.

#### Ezagutza moldatzeko baliabide gisa

Piaget-entzat, bizitzaren hasieran, errealitatean dugun eragina zuzenekoa, fisikoa eta mugimenduen bidezkoa da. Geroago, barneko ekintza bihurtuko da eta ezagutza-iturri izango da.

Planteamendu horren arabera, 9 urteko umeak, ez du zertan sagarrak eta madariak aurrean eduki, maisuak edo maistrak ipintzen dion matematika-problema ebazteko, zeren, bistan eduki gabe frutengan eragiteko eta frutei buruz pentsatzeko gai baita.

Esan dugunez, Piaget-entzat ezagutza moldatzeko baliabidea da. Ezagutzan, moldatzeko bi prozesu sortzen dira: *asimilatzea* eta *moldatzea*.

- **Asimilatzea** pertsonak une jakin batean dituen ezagutza-egituretan informazio berria barneratzea da.
- **Moldatzea** gizakiaren ezagutza-egituretan dagoen informazioa berriro antolatzea da.

Hona hemen adibide bat: Marina 20 hilabeteko haurra da. Marinarentzat txakurrak lau hanka eta buztana dituzten animaliak dira, hau da, txakurra ezaugarri fisikoen bidez eraikitako errealitatea da. Egun batean, Marinak txakur bat zaunka ikusi du eta amak "gau-gau" dela esan dio. Marinak informazio berri hori arazorik gabe barneratu du alde aurretik zuen eskeman, eta ezaugarri fisikoei adierazpen-ezaugarria erantsi die. Horixe da *asimilatzea*.

Aste batzuk geroago, ama eta umea parkean paseatzen ari direla, lau hanka eta buztana dituen eta miao egiten duen beste animalia bat ikusi dute. Marinak, oihuka, "gau-gau" dela dio, eta amak "miao-miau" dela azaldu dio. Neskatoari, alde aurretik eraikita zuen eskemak dagoeneko ez dio balio (lau hanka eta buztana dituen eta hotsa ateratzen duen, hau da, "guau-guau" egiten duen, animalia), zeren ingurutik jasotako informazio berria (lau hanka eta buztana dituzten animalia batzuek "guau-guau" egiten dute eta beste batzuek "miao-miau" egiten dute) ezin baitu barneratu (ezin baitu eskeman sartu), eta, ondorioz, eskema aldatu egin behar du. Aldez aurretik zuen ezagutza-eskema aldatzeko prozesu horren bidez, Marinak, txakurrak eta katuak bereizten ikasiko du. Prozesu hori *moldatzea* da.

## Ezagutzaren eraketa giza garapenean

*Nola sortzen da ezagutza gizakiongan?* Piaget-entzat haur jaioberriengan, abiapuntua erreflexuak dira, zeren erreflexuak baitira adimena eraikitzeko oinarria. Erreflexuak sortzetiko jokabide sinpleak dira, eta erreflexuen bidez, haurra hurbildu egin daiteke, ingurua manipulatzeko eta ezagutzeko. Horrela, haurtxoek jasotzen duten informazio berria barneratu egin dezakete eta, behar dutenean, ezagutza-eskema berriak egiteko moldatu egin dezakete.

Jasotako informazioa pertsonak duen informazioarekin bat ez datorrenean (Marinaren kasuan txakurrekin eta katuekin gertatzen zen bezala), gatazka edo desoreka sortzen da. Gatazka edo desoreka hori konpondu eta, ostera ere, gizakiak beti bilatzen duen oreka hori lortzeko, ezagutza-eskemak aldatu egiten dira.

Piaget-entzat, haurra mundua ezagutzeko ikertzen ari den zientzialari txikia da, eta, alde aurretik zituen ideiak ez direla zuzenak frogatzen duen informazioa jaso ahala, eskemak eta ideiak aldatu egiten ditu.

Piaget-ek haurraren garapena lau estadiotan banatu zuen. Estadiok honako hauek dira:

└ **Zentzumeneren eta mugimenduen estadia. Jaiotzatik 2 urtera bitartean.**

**Haurraren ezagutza objektu jakin batekin zentzumeneren eta mugimenduen bidez egin dezakeenaren araberakoa da.**

└ **Eragiketa-aurreko estadia. 2-6 urte.**

Arrazonamenduak oraindik intuiziozkoak badira ere, adin horretan, haurrak objektuei buruzko hausnarketa egiten du, objektuok zuzeneko eta berehalako esperientziarik ez izan arren.

Hizkuntza, pentsamendu sinbolikoa eta egozentrismoa (besteez ohartzeko adimen-gaitasunik ez izatea) estadio honetan sortzen dira.

└ **Eragiketa konkretuen estadia. 7-11 urte.**

Umea logika erabiltzen hasten da, bere errealitate konkretuko egoerak interpretatzeko eta konpontzeko, baina oraindik ezin ditu egoera abstraktuak interpretatu, ez eta konpondu ere.

└ **Eragiketa formalen estadia. 12 urtetik aurrera.**

Pertsona guztiak, bizitzako egoera guztietan, estadio honetara iristen ez badira ere, horixe da zientzialariaren pentsatzeko eta ezagutzeko era, hots: pentsamendu hipotetikoa, logikoa eta abstraktua.

## Afektibitatearen eboluzioa Wallon-en iritziz

**Henri Wallon** Parisen jaio zen 1879an eta 1962an hil zen. Filosofia eta medikuntza ikasi zituen. Bere lana Piaget-ena baino lehenagokoa da, eta gutxiago ezagutzen da. Gizakia gorputz eta arimatan banatzen dituzten Descartes-en teoriaraino oinarritutako beste ikusmolde dualisten aurka, Wallon-entzat gizakia unitatea da. Bere lanik ezagunenetako batean esaten duenez: "gizakia izaki biologikoa, izaki soziala da eta pertsona bakarra da". (1)



Henri Wallon (1879-1962)

Hala ere, badirudi, Wallon-entzat alderdi sozialak garrantzi berezia duela, zeren gizakia beste pertsonen arteko alde aurreko harremanen arabera sortzen eta garatzen dela uste baitu. Piaget-ek ez bezala, garrantzi handiagoa ematen die giza harremanei, inguruarekiko harremanei baino.

Beste autore batzuekin alderatuz, Freud-ekin, adibidez, ikusmolde desberdina du, zeren Wallon-entzat gizarteratzea ez da gurasoenganako harremanetan bakarrik oinarritzen; aitzitik, oinarria zabalgoa dela uste du eta gizarte-harreman guztiak sartzen ditu.

Horren arabera, Wallon-entzat emozioak funtsezko garrantzia du pertsonaren garapenean. Emozioak eta afektibitateak, eboluzioari dagokionez, hizkuntza aurretiko adierazpen-sistema osatzen dute. Hasieran, emoziook ondo bereizten ez badira ere, haurtxoaren eta helduaren arteko harremanak afektuzko adierazpen horietan oinarritzen dira.

Wallon-ek, sei estadiotan banatzen du giza garapena. Estadiook ez daude elkarren artean pasatzen den denboraren arabera antolatuta, pertsonak hazten den inguruarekiko ezartzen dituen harreman nagusien arabera baizik. Periodo bakoitzean, haurrak egiten duen guztia integratzen eta antolatzen duen funtzio nagusia dago. Etapa bakoitzean inguruarekin harremanak ezartzeko era desberdina da, eta estadio bakoitzean, aurreko estadioan egindako funtzioak sartzen dira

Wallon-en garapen-estadioak honako hauek dira:

### **Mugimendu hutsen estadioa**

Jaiotzatik 6 hilabetera bitartean. Haurtxoaren bizitzan funtzio fisiologikoak dira nagusi. Etapa honetan, haurraren jarduerak lo egitea, elikatzea eta mugitzea dira.

### **Emozioen estadioa**

6 hilabetetik urtebetera arte. Emozioen espektroa zabaldu eta zehaztu egiten da. Haurra amaren beharra izaten hasten da, premia fisiologikoak betetzeagatik ez ezik, amak emozionalki duen garrantziagatik ere bai.

### **Zentzumenen eta mugimenduen estadioa**

2-3 urtera bitartean. Estadio honetan, haurrak jarduera zirkularrak egiten ditu, hau da, atsegina eragiten diotenez, behin eta berriz errepikatzen dituen mugimenduak egiten ditu. Adibidez, objektu batekin mahaiaren kontra jotzen duenean, gustuko duen hotsa ateratzen du eta, horregatik, jarduera errepikatu egiten du. Jokabide horien bidez, haurrak, inguruko objektuak ezagutzeko, hurbiltzeko eta esperimentatzeko aukera du.

### **Pertsonalismoaren estadioa**

3-6 urte bitartean, gutxi gorabehera. Etapa honetan, haurrak bere haur-nortasuna eraikitzen du. Estadio honetan afektibitate-premia da nagusi. Adin honetako haurrak maitasuna, laguntza eta onartzea behar du eta, horrek, etapa honetan izaten duen jokabidea baldintzatu egiten du. Estadio hau, hiru alditan banatzen da:

- **2-3 urte. Haurrak ingurukoenganako arbuioa eta aurkako joera ditu. Pertsonalismoaren krisia deritzona da. Krisi hori bere nortasuna finkatzeko ahalegina besterik ez da. Askotan, fase honetan elkarbizitza zailago bihurtzen da, zeren haurra bere nahiak inposatzen saiatzen baita eta besteen nahien kontrako jarrera gogorra hartzen baitu. Haurrak bere autonomia babestu eta aurkitu berri duen “bere burua” defendatu nahi du, baina ez ditu nahi dituen emaitzak lortzen. Etengabeko kontrako jarreraren bidez, ez du beste pertsonengandik afektu gehiagorik lortzen eta jokabide-aldaketa sortzen da.**

- **3-4 urte. Grazia-fasea deitu ohi zaio, zeren, aldi honetan, haurren helburua limurtzeko jokabideen bidez, beste pertsonen onarpena eta mirespena lortzea baita. Etapa nartzisista honetan, haurrak trebetasun guztiak erabili ohi ditu, maite duten pertsonak liluratzeko.**

- **Hirugarren etapa 5 urte baino lehentxeago hasten da. Beste pertsonen imitazioa areagotu egiten da: haurrek miresten dituztenen portaerak imitatu egiten dituzte. Rolak antzetzeko aldia da.**



### **Kategoria-pentsamenduaren estadioa**

6-11 urtera bitartean. Bi fasetan banatzen da: **pentsamendu sinkretikoa** eta **kategoria-pentsamendua**. Lehenbiziko fasean (6-9 urte), haurrak errealitateko alderdi subjektiboak eta objektiboak nahastu egiten ditu, pentsamendu globala eta zehaztugabea du, hau da, elementu desberdinak konbinatuta, bikoteak osatzen ditu, inguruko elementuak era bitarrean egituratzeko. Adibidez, 7 urteko umeak eguzkia eta hondartza lotu egiten ditu, eta bere pentsamenduan bi elementuok elkartuta funtzionatzen dute.

Kategoria-pentsamenduaren bidez, ordea, objektu jakin bati dagokiona, hau da, objektua definitzen duena, zehaztu egiten da. Beraz, bederatzi urtetik aurrera, umea objektuak, dagozkien erabilera-ezaugarrien arabera (“horrek zertzeko balio du”) edo kalitate-ezaugarrien arabera (“hori zera da”) bereizteko gai da, eta ez du beste objektuekin erlazionatu beharrik.

### **Pubertaroaren eta nerabezaroaren estadioa**

12-15 urtera bitartean. 6 urtera arte, umea bere buruaren inguruan orientatzen da, eta energia guztia bere burua eraikitzeko erabili ohi du. Estadio honetan eta aurrekoan, umearen orientazioa, nagusiki, bere buruaz kanpokoa da, eta, horren bidez, ezagutzari esker, kanpoko errealitatea eraikitzeko gai da.

## ■ Freud-en psikoanalisiaren teoria

**Sigmund Freud** Moravian jaio zen 1856an eta Londresen hil zen 1939an. Familia judukoa zen, txikia zenean familia Vienara bizitzera joan zen, eta, hantxe bizi izan zen Freud ia bizitza osoan. Freud medikua zen eta, garai hartako neurologo ospetsua zen *Charcot*-ek bezala, hipnosia erabili ohi zuen pazienteak sendatzeko.

### **Psikoanalisi: terapia eta teoria**

Freud-ek, erabiltzen zuen teknika aldatu egin zuen, eta, ondorioz, *asoziazio askea* deritzon teknika sortu zuen. Gaur egun, teknika horixe da, oraindik ere, psikoanalisi-terapiaren oinarria.

**Asoziazio askean** pazienteak, burura etortzen zaizkion ideia guztiak (ideia sinpleenetik haurtzaroko orotzapean barne-barnekoetaraino) elkarrekin uztartzen ditu, inolako zentsurarik gabe, ideia horiek garrantzitsuak, egokiak edo zentzugabeak diren pentsatu gabe. Psikoanalistak asoziazio horiek eta pazienteak hitz egiten duenean egin ditzakeen akatsak edo *lapsusak* interpretatu egiten ditu eta, horrela, pazientearen inkontzientea eta gatazkak zein diren jakin dezake. Horrela, sintomak (adibidez, larritasuna, tristura, tikak edo insomnioa) murriztu egiten dira, eta pazienteak bere gatazkak, emozioak eta bulkada ezkutua ezagutu eta onartu egin ditzake eta hobeto jasan ditzake. Beraz, nortasunaren egitura aldatzen ez bada ere, egitura hori ezagutzuz gero, onartu egin daiteke eta gatazkak arindu egin daitezke.

Baina psikoanalisi, gatazka psikologikoak ezagutzeko eta tratatzeko terapia izateaz gain, **teoria** ere bada. Teoria horrek *gizakiaren psikeak nola funtzionatzen duen eta nortasuna nola egituratzen den azaltzen du*. Izan ere, Freud-ek *senei buruzko teoria, nortasunari buruzko bi teoria eta sexualitatearen teoria* sortu zituen. Azken teoria hori 4. unitate didaktikoan azalduko dugu.

### **Senen teoria**

Senen teorian bi irrika aipatzen dira: bizi-irrika edo *Eros* eta hil-irrika edo *Thanatos*.

Bizi-irrika bizirik irauteko senari eta libidoari (sexu-energiari) dagokie. Hil-irrika gizaki bakoitzak dituen osagai suntsizaillei eta erasokorrei dagokie. Pertsonaren bizitza bi irrika horiek gobernatzen dute.

### **Nortasunaren teoriak**

Nortasunaren teoriari dagokienez, Freud-entzat, gizakiaren jokabidean emozioak arazoia baino erabakigarriagoak direla esan behar da.

┌ **Freud-en lehenbiziko nortasun-teoria edo lehen topika:** Nortasunaren sorkuntza haurtxoak eta ume txikiak, bizitzako lehenbiziko urteetan, gurasoekin ezartzen dituzten lehenbiziko harremanetan oinarritzen da.

**Teoria hau ez da arazoian oinarritzen, emozioetan baizik. Inkontziente, prekontziente eta kontziente terminoak teoria honetan aipatzen dira estreinako. Inkontzientea kontzientziatik kanpo dagoen eta, beraz, kontrolaezina den, guztia da. Prekontzientea, kontzientziara sartzeko zorian dagoen guztia da. Eta kontzientea, pertsona bakoitza, erabat ohartuta, errealitatearekin lotzen duena da.**

┌ **Bigarren topikan, Freud-ek hiru instantzia bereizten ditu gizakiaren nortasunaren egituran:**

- **Zera.** Nortasunaren parterik zaharrena da. Primitiboa eta inkontzientea da eta atsegin-printzipioak gobernatzen du ("zerbait bahi badut, hartu egiten dut, hori egitearen ondorioak kontuan hartu gabe").
- **Nia.** Errealitatearen printzipioak gobernatzen du, hau da, errealitateak eta errealitatearen aukerak lehentasuna dute, nahien aldean. Parte kontzientea eta parte inkontzientea ditu.
- **Supernia.** Pertsonaren erreferentzia-morala da. 5 urtetik aurrera sortzen da eta, bertan, arauak eta debekuak sartzen dira. Superniaren alderdi gutxi batzuk baino ez daude kontzientean, gainerako guztiak inkontzientean daude.

*Nia*, oreka mantentzen saiatzen da nahi duena berehala lortzeko joerara duen *zeraren* eta arauak eta egokia eta desegokia den moralaren arabera joera duen *superniaren* artean. Niaren eginkizuna zaila da: etengabe presiopean dago, eta, batzuetan, larriagoak edo arinagoak izan daitezkeen barne-gatazkak eragin ditzake.

Adibidez, pertsona helduak erabakia hartu behar du honako hiru joeren artean: *zerak*, *atsegin-printzipioaren* arabera honako hau esaten dio: euri-tan, automobila 200 km/h-ko abiaduran ipini autobidean; *superniak*, ordea, honako hau esaten dio: 120 km/h-tik gorako abiaduran ibiltzea debekatuta dago, eta *errealitatearen printzipioak* honako hau esaten dio: euria ari du eta ez du dena galtzea merezi minutu batzuetan arriskatzegatik, eta, gainera, isuna jaso dezaket, eta hilabete honetan ez nabil ondo diru aldetik.

*Zeraren* eta *superniaren* artean sortzen diren tentsioak arintzeko, *niak* defentsa-mekanismoak ditu; adibidez, ukatzea, errepresioa, proiektzioa edo arrazionalizatzea. Defentsa-mekanismo horiek lagundu egiten diote *niari zerak* proposatzen duenaren eta *superniak* proposatzen duenaren artean erabakia hartzen.

## 2.4. Atxikimendua

### ■ Atxikimenduaren garapena lehen haurtzaroan

Haurtxoak zaintzaileenganako kontaktua mantentzeko eta zaintzaileok bera zaintzera bultzatzeko gaitasuna badu ere, horrek ez du esan nahi atxikimendua automatikoki sortzen denik. Haurrak helduek baino denbora gehiago behar du lotura-harremana sortzeko. Lehenbiziko hila-beteetan ezin da atxikimendua dagoenik esan. Harreman hori umeak (jaiotzatik dituen jokabide-ereduen bidez) eta amak (haurraren jokabideetara moldatzeko duen gaitasunaren bidez) sortzen duten elkarreragina baino ez da. Haurra geroago hasten da amarengana nahita egokitzen eta beste pertsona batzuk ezagutzen eta bereizten eta haienganako lotura sortzen.

Haurra biologikoki erregulatzen diren harreman horietatik lotura afektibora pasa dadin, bi baldintza bete behar dira: elkarrekintzak etengabekoa izan behar du eta haurrak zenbait prozesu mental eta afektibo garatu egin behar ditu. Gurasoek haurraren seinaleak interpretatzen eta seinaleoi egoki erantzuten ikasi behar dute, eta haurrak atxikimendu-irudia ezagutu eta berezitu egin behar du.

Atxikimenduari dagokionez, lehen haurtzaroan hiru fase bereizten dira:

#### **1. fasea. Pertsonengana hurbiltzeko joera izatea, baina zaintzen duten pertsonak bereiztu gabe (0-3 hilabete)**

Haurrak, bizitzako lehenbiziko unetatik aurrera, bereiztu egiten ditu pertsonak inguruko beste elementuetatik. Gizakiek haurraren arreta erakartzen dute, eta lehenbiziko hiru hilabete horietan, haurrak gizakienganako jokabide eta seinale emozionalak erabiltzeko joera du. Gizarte-harremanak sortzeko trebetasunak astiro garatzen dira, baina egoera larriak sortzen diren heinean, elkarrekintzarako joera areagotu egiten da. Ikus ditzagun aurrerapen horien zenbait adibide.

Negarrak, jaiotze eta bigarren astetik aurrera, kanpoko faktoreekin zerikusia du. Lehen hilabetea eta gero, pertsonen ahotsa eta aurpegi-espresioa estimulu eragingarriak dira negarra gelditzeko.

Ikertzaile guztiek diotenez, negarra ez da ona (energia agortzen du eta tentsioa eta buruko presioa handiagotu egiten ditu) eta minaren eta gosearen ondoriozko negarrak zaindu egin behar dira berehala. Baina negarraren beste alderdi batzuei dagokienez, ikertzaile guztiak ez datoz bat:

Ikaskuntzan oinarritzen diren iritziak, negarrari jaramonik egiten ez bazaio, haurrak baldintzatu egin daitezke, gutxiago negar egin dezaten. Baina,

baldintzapen horrek epe luzera ez du funtzionatzen etxean: jaramonik egiten ez bazaio, haurrak gogorrago negar egingo du eta, seguruenik, umeak gertatzen dena ezin duela kontrolatu sentituko du. Ikaskuntza horrek, kontrolaren orde, autoestimua baxua eragingo du. Aitzitik, etxean, zaintzaileek negarrari azkar erantzuten badiote, negarra laburragoa izango da eta haurrak etenak egingo ditu zaintzailearen erantzunaren zain, eta horrela, haurrak jaramon egiteko gogor negar egin beharrik ez duela ikasiko du.

Amaren eta haurraren arteko elkarreragina ere, bizitzako lehen une horietan ezartzen hasten da. Kaye-k eta Wells-ek (1980), titia ematean sortzen den elkarrekintzan oinarrituta, amaren eta haurraren eginkizunak txandakatu egiten zirela ondorioztatu zuten: geldiuneetan, amak manipulatu egiten du eta, amaren jarduera bukatzen denean, haurra xurgatzen hasten da. Bigarren eta hirugarren hilabetea bitartean, ahoko adierazpenak ere txandakatzen hasten dira.

Hala ere, oraindik ezin dugu esan hori atxikimendua denik, zeren haurrek ez baitituzte familiakoen irudiak ezagutzen, ez eta ezezagunengandik bereizten ere. Egia da haurrak zaintzen duen pertsonaren (normalean, pertsona hori ama izan ohi da) ahotsa eta usaina identifikatu egiten dituela, baina, horrek ez du esan nahi pertsona identifikatzeko eta bereizteko gai denik, zeren gaitasun hori ez baita sortzen hiru edo lau hilabete izan arte. Olson-en iritziak (1981), alde aurretik hautemandakoa errepikatu egiten dute, baina oraindik ez dira gai ama beste pertsonengandik bereizteko. Izan ere, ama ez den beste norbaitek, amak bezain egoki zaintzen badu, haurrak pertsona hori ama balitz bezala hartuko ditu.

#### **2. fasea. Elkarreragina ezartzeko, familiako irudienganako lehentasuna izatea, baina ezezagunak arbuia gabe (3-7 hilabete)**

Ikusmen-pertzepzioa eta gainerako zentzumenen bidezko pertzepzioa garatzen denean, haurra gai izaten da, zaintzen duen pertsonaren aurpegia, usaina, ahotsa eta beste zenbait ezaugarri bateratzeko, eta, ondorioz, atxikimendu-irudia bereiztu egiten du, baina oraindik ez ditu ezezagunak arbuia. Haurrak atxikimendu-irudia bereizi egiten duela adierazten duten jarduerak honako hauek dira:

- Irribarre bereizgarria: haurrak gainerako pertsonen bano naturaltasun handiagoz, maizago eta zabalago egiten dio irribarre amari.
- Ahoskatze bereizgarria: atxikimendu-irudiarekin elkarreraginean dagoenean, ezezagunekin dagoenean baino maizago ahoskatzen du.
- Negar bereizgarria: ama pertzepzio-eremutik aldentzen denean, haurrak negar egiten du, baina besteren bat aldentzen denean, ez du negar egiten.

- Negarrari uzte bereizgarria: besoetan hartzen duena ama denean, haurrak negar egiteari utzi egiten dio.

Jokabide bereizgarriaren ondorioz, haurrak gurasoen arreta are gehiago erakartzen du, zeren gurasoak konturatu egiten baitira, haurrak maitasunari eta arretari erantzun egiten diela. Aldaketa horren ondorioz, aurrez aurreko elkarreragina sortzen da. Haurrak eta zainzaileek harreman emozional egokia ezartzen dute eta horrek elkarrizketa garatzea eta mantentzea eragiten du. Haurrek begiradaren, irribarrearen eta ahoskatzearen bidez, erantzun egiten die zainzaileen jardueri, eta zainzaileek, elkarreragina mantentzeko, jokabideak haurraren erritmora egokitu egiten dituzte, egoeraren eta seinaleen arabera.

Elkarreragin horretan, normala da, neurritz kanpoko jokabideak sortzea, baina haurrak funtzionatzen ez duten gizarte-harremanak konpontzen ikasten du eta, ondorioz, tolerantzia emozional handiagoa lortzen du. Zainzailearen jarduera gehiegizkoa denean, haurraren erantzuna begirada kentzea, zurrun jartzea edo orro egitea izaten da; orduan, zainzaileak mezua ulertzen du eta jokabidea egokitu egiten du umea lehenera etor dadin. Elkarreragina sortzea, egokitzea edo konpontzea zailagoa da atxikimendu-irudia arrotza denean. Atxikimendu-irudi arrotzak, batzuetan, haurrak harremana eteteko egiten dituen seinaleak ez ditu interpretatzen, haurra gehiegi estimulatzen du, edota ez ditu kontuan hartzen elkarreragina ezartzeko haurrak egiten dituen ahaleginak.

Lehenbiziko hilabete horietan, zainzaileek gero eta hobeto interpretatzen dituzte haurraren seinaleak, eta, ondorioz, erantzunak egokitzeko, haurraren arreta erakartzeko eta mantentzeko gaitasuna lortzen dute. Haurraren eta zainzailearen arteko elkarreragina sendoagoa den heinean, harremana hobea izan ohi da. Stern-ek dioenez (1977), elkarreragin horiek elementu garrantzitsuenak dira elkarrenganako atxikimendua sortzeko.

Prozesu soziokognitiboei (gizarte-ezagutzako prozesuei) dagokienez, atxikimendu-irudienganako elkarreragina, haurrak eraikitzen dituen barne-eskemetan sartzen da. Haurrak, gero, barne-eskema horiek jokabide-ereduak sortzeko erabiliko ditu.

Beraz, haurra, ohiko zainzailea bereizteko eta familiakoen irudiaren barne-eskema eraikitzeke gai da. Haurrak, antzekotasunak eta desberdintasunak konparatuz, jasotzen duen informazioa egiaztatzeko erabili ohi du eskema hori.

Hiruhilabetetik aurrera, haurrak, atxikimendu-irudiaren ezaugarriak hautemateaz gain, pertsona horren jokabidea ere bereiztu egiten du (Carpenter, 1974; Cohn eta Tronick, 1983; Field, 1984). Haurrak atxikimendu-irudiaren eskeman, jokabide-eredua ere sartzen duela egiaztatzeko egindako ikerketetan,

amei haurrenganako duen ohiko jokabidea aldatzeko (irribarrerik ez egiteko eta ez ahoskatzeko) eskatu zitzaie. Amaren ez ohiko jarrera horretaz ohartuta, hiru hilabeterekin, haurrek negar eginez, begirada kenduz, protestatuz eta jokabide nahasiaz erantzun zuten.

Field-ek (1984), bi ama-talderen arteko konparaketa egin zuen. Talde batean erditu osteko depresioa zuten amak zeuden eta beste taldean (kontrol-taldean) depresioak jota egotea antzeztzen zuten amak zeuden. Kontrol-taldeko haurrek, depresio-egoeran berezko elkarreraginean baino jokabide ezezkorrak erakutsi zituzten, eta benetako depresioa zuten amen haurrek, egoera batean zein bestean, ez zuten aldaketa nabarmenik adierazi.

Datu horien arabera, haurrak, atxikimendu-irudia hautemateaz gain, pertsona horrekin lotutako ohiko gertaearen eredu ere ezartzen du, eta, eredu horren bidez, unean uneko esperientziak eta lehenago bizitakoak konparatu egin ditzake. Jarraian, elkarreraginaren arabeko eredu horiek nola sortzen diren aztertuko dugu.

Haurraren eta zainzailearen arteko elkarreraginean, milaka jarduera daude (elkarri begiratzea, jaten ematea, bainatzea, etab.). Elkarrekintza ugari horietako batzuk, hau da, oinarrizko premien (atxikimenduari, gosearen...) ondoriozkoak, errepikakorak eta iraunkorak dira, zeren, haurrak etengabe bilatzen baitu zainzaileen hurbiltasuna eta elkarreragina, eta zainzaileak erantzuteko joera iraunkorra baitu. Elkarrekintza horiek lehentasuna dute gainerakoekiko, eta emozio-karga handia dute eta estimulu oso baliagarriak dira. Beraz, elkarreraginean, atxikimenduari lotuta dauden eta emozionalki balio handia duten elkarrekintza errepikakor eta iraunkor horiek nabarmentzen dira. Elkarrekintza horiek dira barne-ereduak sorrarazten dituztenak.

Orain arte, familiakoen irudienganako elkarreraginean lehentasuna duten ekintzak aipatu ditugu, baina, oraindik ez dugu azaldu lotura afektiboa nola ezartzen den. Fase honetan, haurrak, ama eta amaren jokabidea bereizteko barne-eskemak eraikitzen ditu, baina jokabide-eredu horiek pertsona dagoenean baino ez dute eragiten. Ama ez badago, umeak ez du amaren faltarik sentitzen, eta ez da estutzen. Haurrak ez du pertsona jakin batenganako atxikimendurik, zeren jokabideen bidez pertsona-talde handi samarraren arreta erakarri nahi baitu. Atxikimendu-irudia, hurrengo fasean bihurtzen da jokabide-eredu, eta haurrak bereiztu egiten ditu atxikimendu-irudiarekin eta gainerako pertsonekin dituen harremanak.

### **3. fasea. Lotura-harremana eta ezezagunenganako beldurra (8-12 hilabete)**

Zazpigarren hilabetearen inguruan, garapen emozionala eta kognitiboa eta aurreko hilabeteetako elkarreraginaren ondoriozko esperientzia batu egiten

dira, eta haurrak irudi jakin batenganako (amarenganako edo ama ordezkatzeko duenarenganako) lotura afektiboa ezartzen du. Lotura afektibo hori ezarri dela adierazten duten alderdietako bat "aldentzearen ondoriozko estatusuna" da. Atxikimendu-irudia ez dagoenean, haurrak estatusuna sentitzen du: protestatu egiten du, negar egiten du, urduri mugitzen da, etab., eta atxikimendu-irudia itzultzen denean, haurra gogor atxikitzen zaio pertsona horri.

Aldentzearen ondoriozko estatusuna, lehenbiziko hila-beteetan azaltzen bada ere, honako fase honetara arte, ezin da atxikimendu-irudiaren faltarekin zehazki lotu.

Lotura afektiboa ezarri ondoren, atxikimendu-jokabidea antolatu egiten da, eta malguago bihurtzen da. Lehen, atxikimendu-jokabideak sakabanatuta zeuden, baina orain, helburura (adibidez, atxikimendu-irudiarengana hurbiltzera edo segurtasuna bilatzera) egokitzen den sistema antolatuan sartzen dira. Atxikimendu-irudia urrutiegi dagoenean edo haurrak arrisku-seinaleak hautematen dituenean, sistema hori abiatu egiten da eta jokabide-baliabideak (negar egitea, pertsona begiradarekin bilatzea...) martxan jartzen dira, berriz ere hurbiltasuna ezartzeko asmoz. Erantzunak, dagoeneko, malguak dira eta haurraren jokabideak, besteak beste, egoeraren, alde aurreko elkarreraginaren, edota asmoen edo adinaren arabera izango dira. Sistemaren bidez lortu nahi den helburua bera bada ere, egoeraren arabera, helburu hori lortzeko jokabideak aldatu egiten da.

*Esploratzeko sistema.* Lotura afektiboaren eraginez, haurrak mundu fisikoarekin eta gizartearekin duen harremana aldatu egiten da. Atxikimendu-irudiak segurtasun-oinarri bihurtzen dira. Segurtasun hori sentitzen duenean, haurra errealtatea esploratzen hasiko da. Beraz, ama hurbil badago, esploratzeko joera areagotu egingo da, eta ama falta bada, joera hori murriztu egingo da. Haurrek, ingurua esploratzen dutenean edo pertsona ezezagunekin harremana izaten dutenean, aldizka, gurasoen kontaktua bilatzen dute. Haurrak leku ezezagunetan daudenean edo, besterik gabe, etxetik kanpo daudenean, eta atxikimendu-irudiarenganako kontaktua galtzen dutenean, esploratzeari utzi egiten diote eta, estututa, atxikimendu-irudiaren bila hasten dira. Segurtasuna eta ausardia, zalantza eta geldotasun bihurtzen dira.

Beraz, atxikimendu-irudia, haurrari baldintza egokietan ingurua esploratzeko eta pertsona ezezagunekin elkarreragina sortzeko aukera ematen dion segurtasun-oinarria da.

Emaitza horiek, gizakiaz aparte, beste espezie batzuegan ere frogatu izan dira. Adibidez, hegaztiak, ama-aiten aurrean, esploratzeko mokokada gehiago egiten dituzte eta, borrokatu behar dutenean, mokokada horiek bortitzagoak izaten dira. Ugaztunei dagokienez, adibidez, txakur erasokorra, jabea bere ondoan ez dagoenean edo leku ezezagunetan dago-

enean, beldurti eta herabe bihur daiteke; tximinoek, amarengandik aldenduz gero, ez dute inolako jardura esploratzailek egiten (Reite eta beste, 1981).

Bestalde, atxikimendua sortu eta gutxira, pertsona ezezagunek artegasuna eta beldurra sorrarazten dute haurrengan. Haurren erreakzio horri "ezezagunenganako beldurra" deitu ohi zaio.

*Ezezagunenganako beldurra.* Aurreko hiru hilabeteetan, haurrak familiakoak eta pertsona ezezagunak bereizteko gai ziren, baina ezezagunak ez zituzten arbuatzen. Izan ere, jaiotzatik *afilazio-sistema* (besteenganako interesa eta harreman baikorra ezartzeko joera) abiatzen da. Atxikimendu bereizgarria ezarri ondoren, pertsona ezezagunenganako jokabidea ere aldatu egiten da, eta haurrak artegasuna adierazten du, pertsona hori arbuatu edo saihestu egiten du edo beldur bizia erakusten du. Erantzun-mota hori zortzigarren hilabetearen inguruan agertzen da, eta areagotu egiten da urtebete inguruan.

Ezezagunenganako erreakzioaren aldaketa gai eztabaidagarria izan da. Lehen, teoria desberdinak zeuden, baina orain, auzia ezezagunenganako beldur hori badagoen ala ez frogatzea da.

Psikoanalisi-teoriaren arabera, ezezagunarenganako beldurra eta alderatzeak eragindako estatusuna parekoak dira, eta lotura afektiboa ezarri dela adierazten dute (Spitz, 1950; Spitz eta Cobliner, 1965). Autoreontzat, haurrari pertsona ezezaguna hurbiltzen zaionean, haurrengan ama ikusteko grina sortzen da, baina haurtxoa ama ez dela konturatzen denean, amaren faltaz ohartzen da. Beraz, estatusun-erreakzioak ez dira, berez, pertsona ezezagunarenganako erantzuna, amaren irudiarengandik aldentzearen ondoriozkoak baizik. Atxikimendua eta ezezagunenganako erreakzioa lotuta daude, jakina, baina datu empirikoen arabera, erlazio hori ez da kausala, hau da, erantzuna ez da egoeraren ondoriozkoa. Ezezagunenganako beldurra frogatzeko egin diren ikerketa guztietan, haurrak amarengandik hurbil edo amaren besoetan zeuden.

Kognizioan (ezagutzan) oinarritzen diren autoreontzat (Kagan, 1974; 1984), ezezagunenganako beldurraren oinarria, berriaren eta ohikoaren arteko gatazka da, kasu honetan, pertsona ezezagunaren eta atxikimendu-irudiaren eskemaren artekoa. Hipotesi hori ere ez da oso azalgarria, zeren, adibidez, ama hurbil dagoenean, ezezaguna urrun dagoenean edo haurrak kontaktua kontrolatzen duenean, beldur-erreakzioak ez baitira hain biziak izaten eta ez baitago arrazoirik egoera horietan ezezaguna hain arrotza ez dela pentsatzeko.

Hipotesi etiologikoaren (kausak aztertzen dituen hipotesiaren) arabera, ezezagunak beldurraren adierazle naturalak dira, eta beldur hori, bizirik irautearekin zerikusia duen sortzetiko joera da. Lotura bereizgarria ezarri ondoren, ama segurtasun-oinarri



bihurtzen da eta, mugimenduen garapenaren laguntza, esploratzeko joera biziagotu egiten da, eta horrek berez amarengandik urruntzea eragiten du. Une horretantxe azaltzen da ezezagunenganako beldurraren eginkizun nagusia, hau da, haurren eta atxikimendu-irudiaren arteko distantzia murriztea. Sistema horren bidez, haurrak arrisku ugarien aurkako babesa lortzen du.

Badago beste eztabaida-elementu bat, hots, erreakzioaren orokortasuna. Ezezagunenganako beldurrari buruz egin diren ikerketetan, kontrako emaitzak lortu izan dira, beldurra adierazten duten haur-kopuruari dagokionez. Zenbait haurrek, beldurra ez adierazteaz gain, ezezagunenganako erreakzio baikorrak izaten dituzte. Datu horiek zalantzak sorrarazi dituzte autoreengan, ezezagunenganako beldurra erreakzio orokortzat jotzeko orduan.

Ikerketen arabera, pertsona ezezagunak distantzia, denbora eta kontaktatzeko era kontrolatzen dituenean (hau da, haurraren zuzenean hurbiltzen denean, haurrari aurpegia edo gorputza ukitzen dionean edo besoetan hartzen duenean), beldur-erantzuna bizia izan ohi da eta haur gehienek adierazten dute. Aitzitik, haurrak pertsona ezezaguna kontrola dezakeenean (hau da, ezaguna distantzia egokian jartzen denean eta, posizio horretan, jarrera pasiboa mantentzen duenean edo jokoen bidez elkarrengana sortzen saiatzen denean), haurrek ia ez dute beldur-erantzun bizirik adierazten (ez dute negar egiten, ez dira oihuka hasten, ez dira urruntzen) eta ezezagunarenganako jarrera baikorra erakutsi ohi dute.

Hala ere, ohiko egoeretan, pertsona ezezagunaren jokabidea ez da hain zehatza izaten, zeren, haurraren zuzenean hurbiltzen badira ere, aldi berean, haurraren kontrolpean mantentzen saiatzen baitira. Ezezagunak haurraren zuzenean hurbiltzeko duten erari buruz egin berri den ikerketan egiaztatu denez, kontaktu berean arrotzarenganako beldurra eta atxikimendua sor daitezke. Aztertutako hogeita hamar haurrek beldurra adierazi zuten, baina, aldi berean, gehienek pertsona ezezagunarenganako jarrera baikorra adierazi zuten (Ortiz, 1993). Pertsona arrotzak haurra ukitu eta besoetan hartu zuen kasuetan, haur gehienek beldurra adierazi zuten, baina, hurrengo kontaktuan, pertsona arrotzak haurrari objektua eskaini eta jokoen bidez harremana sortzen saiatu zenean, haurrek, gehienetan, arrotzarenganako joera baikorra adierazi zuten. Datu horien arabera, beldur-sistemaren eta atxikimendu-sistemaren arteko lotura frogatu egiten da. Bi joerak (beldurra edo joera baikorra) aldi berean sor daitezke, edota haurrek erantzuteko sistema bat edo bestea erabiliko dute, baina ezin da ukatu, beldurrekin batera atxikimendua ere adierazten dela.

Ikuspuntu etologikoaren arabera (giza jokabideak aztertzen dituen ikuspuntuaren arabera), jokabideen malgutasun hori normala da, zeren ezezagunenganako beldurra ez baita jokabide finkoa edo erreakzio mekanikoa edo zurruna. Atxikimendua bezala,

ezezagunenganako beldurra, egoera aztertu ondoren abiatzen den jokabide-sistema da. Haurrak pertsona ezezaguna mehatxagarria dela hautematen badu, sistema hori martxan jartzen du, baina haurrak egoera kontrolatzen badu, pertsona arrotzak eragin dezakeen arrisku hori murriztu egiten da (Gunnar, 1978; 1980; Levitt, 1980), eta, gainera, pertsona ezezagunak haurrari jostailuak eskaintzen badizkio edo ama bertan badago, beldurra edo zalantza adierazi ostean, normala da jarrera baikorra adieraztea.

Beraz, atxikimendu-irudiaren segurtasun-egoera utzi eta inguru fisikoa atertzeko eta gizarte-harreman berriak egiteko trantsizioan, haurrak, beldurraren bidez behar duen segurtasuna ziurtatzea bilatzen du.

Ezezagunenganako beldurraren eboluzioari dagokionez, frogatuta dago lehenbiziko urtearen buketan beldurra biziagotu egiten dela eta 18 hilabetetik aurrera murriztu egiten dela.

*Barne-eredu aktiboak.* Gizarte-ezagutzaren ikuspuntuaren arabera, aldentzearen ondoriozko estutasunaren bidez, haurrak atxikimendu-irudia gogoratzeko barne-eredua eraiki duela adierazten du. Irudikatze gaitasun horren eraginez, haurraren jokabidea nabarmenki aldatuko da. Barne-eredu hori funtsezkoa da, geroko harreman sozioafektiboetan eta emozioak erregulatze-ko eran lehenbiziko hilabeteetako elkarrengan haurrengan zein helduengan duen eragina azaltzeko.

Irudikapen horiek arreta, oroimena eta sentimenduak gobernatzen dituzte. Haurrak, barne-eredu horien bidez, atxikimendu-irudiarenganako lehentasunezko elkarrekintzak gogoratzen ditu eta egoera aztertze-ko eta horren arabera jokabidea adierazteko erabiltzen ditu.

Aurreko hilabeteetan, haurra atxikimendu-irudiaren egoera aztertu eta bere asmoekin bat zetorren konturatzeko gai zen; fase honetan, atxikimendu-irudiak izango duen jokabidea aurreikusteko gai da eta horren arabera joka dezake. Barne-eredu horiei esker, ez du egoera bakoitza aztertu behar, zeren, alde zurrik bai baitaki, amaren laguntza izango duen ala ez.

Barne-eredu aktiboaren bidez, atxikimenduak eragiten duen segurtasun-egoeran pertsonen artean izaten diren desberdintasunak azter daitezke. Hurrengo atalean, alderdi hori azalduko dugu.

## ■ Atxikimendu-motak eta atxikimenduaren egonkortasuna

Haur gehienek, eskaintzen zaien arreta edonolakoa izanda ere, lotura ezartzen dute atxikimendu-irudiarekin, baina loturaren kalitatea aldatu egiten da, atxikimendu-motaren arabera.

*Atxikimendu-estiloak edo -ereduak.* Denboran egonkor samar mantentzen diren atxikimendu-sistemaren ezaugarri-multzoa da (irudikapen-motak, jokabideak eta sentimenduak). Hala ere, eztabaida dago, estilo horien egonkortasun-mailari eta ereduok ezartzeko garaiari dagokienez.

Ainsworth-ek eta laguntzaileek (1978), haurren bizitzako lehen urteetan, haurren eta atxikimendu-irudiaren arteko loturaren kalitatea edo segurtasuna neurtzeko prozedura laburra eta sistematikoa garatu zuten. Prozedura horretan, haurrak, zortzi estres-egoera laburretan (amarengandik eta/edo pertsona ezezagunarengandik aldentzea eta berriro kontaktatzea), atxikimendu-irudiarenganako zein jokabide zuen behatu zuten. Loturaren kalitatea neurtzeko, honako irizpide hauek erabili zituzten: atxikimendu-irudiarengandik aldentzearen ondoriozko estutasuna, atxikimendu-irudia itzultzen denean haurrak duen erreakzioa, atxikimendu-irudia esploratzeko oinarri gisa erabiltzea eta haurrak emakume ezezagunarekin duen elkarreragina. Proba honen bidez, haurren jokabidea erregistratu eta aztertu ondoren, atxikimendua hiru kategoriatan sailkatu zuten:

1. *Atxikimendu segurua.* Haurrek, atxikimendu-irudia ondoan dagoenean, ingurua biziki esploratzen dute. Ama ez dagoenean, esplorazioa ez da hain bizia eta aldentzearen ondoriozko estutasuna nabaria da, beti indar beraz adierazten ez bada ere. Ama itzultzen denean, haurrak poza adierazten du eta atxikimendu-jokabideak martxan jartzen ditu, baina talde honetako haurrak azkar kontsolatzen direnez, zalantza-une batzuen ondoren, berriro ere esploratzen hasten dira. Kategoría honetan, haurren % 65-70 daude.

2. *Estutasun-atxikimendu anbibalentea.* Haur hauek, amarekin daudenean ere ez dute ingurua esploratzen edo oso gutxi esploratzen dute, ez dira amarengandik aldentzen. Ama joaten denean, aldentzearen ondoriozko estutasuna oso bizia izaten da. Atxikimendu-irudia itzultzen denean, talde honetako haurren jokabidea anbibalentea izaten da, hau da, amarekin kontaktua bilatzen eta mantentzen saiatzen dira, baina, aldi berean, amari ez diote kontaktu hori egiten uzten. Haur seguruekin gertatzen ez den bezala, aldentu ondoren, amak edo zaintzaileak nekez kontsola ditzake haur anbibalenteak.

Haur hauek argi erakusten dute segurtasun-falta atxikimendu-harremanetan. Jokabide hau haurren % 10-15ak garatzen du.

3. *Saiheste-atxikimendua.* Talde honetan, gutxi gorabehera, urtebeteko haurren % 20a sartzen da. Haur hauek pasibotasuna edo axolagabetasuna erakusten dute, ia estutasunik ez dute adierazten, eta, atxikimendu-irudia itzultzen denean, kontaktua saihestu egiten dute. Pertsona ezezagunekin ez dira urduri jartzen. Oro har, atxikimendu-sistema abiatu ohi den egoeretan, haur hauek ez dira estutzen eta ez dute

atxikimendu-jokabiderik izaten. Erantzun afektiboak eten edo gorde egiten dituzte.

Haur hauek ere segurtasun-falta dute atxikimenduan, baina kexurik ez dute adierazten eta sentimenduak ezkututzen ikasi dute, eta atxikimendu-irudiarengandik ez dute laguntzarik espero.

Oraintsu, beste atxikimendu-kategoria bat azaldu izan da, hots: "estutasun-atxikimendu nahasia". Egoera arrotzean, haur hauen jokabidea, anbibalenteenaren eta kontaktua saihesten duenarenaren nahastea da. Haurrak desorientatuta egon ohi dira eta atxikimendu-irudiarik ez diote begiratzen hurbiltzen denean. Pertsona arrotzarengandik aldentzen direnean, amarengandik ere aldentu egiten dira. Atxikimendu-irudia itzultzen denean, hurbiltzen eta kontaktua ezartzen saiatzen dira, baina, bat-batean, ihes egiten dute eta elkarrekintza saihestu egiten dute. Mugimenduak eta adierazpenak osatugabeak edo gaizki bideratutakoak izan ohi dira, geldirik egoten dira eta jokabide estereotipatuak izaten dituzte (Main eta Solomon, 1990).

Atxikimendu-estilo horiek atxikimendu-irudiarekin izandako harremanen ondoriozkoak dira.

## Harremankideak eta atxikimenduaren egonkortasuna lehenbiziko hilabeteetan

Bowlby-ren (1969) eta teoriko psikoanalisten iritzi lehenbiziko harreman afektiboak garrantzi handia du geroko egokitzapenean. Sroufe-ek eta laguntzaileek Minnesotan egindako lan ugarien arabera, egoera arrotzetan seguru sentitzen diren haurrek, gerora, gizarte-trebetasun gehiago dituzte, enpatia handiagoa dute, eskola-ariketak hobeto egiten dituzte, jokoetarako eta arazoak konpontzeko irudikapen handiagoa dute, emozioak hobeto erregulatzen dituzte, autonomoagoak dira (baliabideak falta zaizkienean baino ez dute laguntzarik eskatzen) eta hezitzaileekin errazago egiten dituzte harremanak, eta harremanok egokiagoak eta eraginkorragoak izaten dira (Sroufe, 1983; Bretherton eta Waters, 1985; Ortiz eta beste, 1993; Lopez eta beste, 1998).

Lehenbiziko hilabeteetako atxikimenduaren eragina barne-eredu aktiboen bidez azal daiteke, zeren atxikimendu-irudien ereduak eragina baitute haurren harremanak bilatzeko eta interpretatzeko eran. Atxikimendu-irudiaren eredu positiboa eraikitzen duten haurrak fidakorrak eta baikorrak dira harremanak sortzeko orduan: besteek onartu egingo dituztela uste dute, erantzun baikorrak espero dituzte eta arreta eta afektua erakartzeko gai direla konturatzen dira. Baina haur seguruek, harremana ezarri aurretik, arbuioa edo konfiantza-falta erakusten badituzte, eurek positibotzat eta onuragarritzat jotzen duten harremana, besteentzat negatibo bihur daiteke.

Enpirikoen iritzi lehenbiziko harreman horretan erakitako barne-eredua egonkor samarra da eskolaurreko eta eskolako urteetan (Main eta Cassidy, 1988). Nera-

betzako eta helduaroko atxikimenduari buruz egin diren azterketek, Bowlby-ren barne-ereduen egonkortasunaren teoria egiaztatzen dute. Bizitzako lehenbiziko hilabeteetan atxikimendu segurua, anibalentea edo saihestekoa izan duten helduek, bikotearenganako antzeko atxikimendua ezartzeko joera dute (Hazan eta Shaver, 1997; Feeney eta Noller, 1990; Lopez 1994). Atxikimenduaren egonkortasuna azaltzeko teoria ere barne-ereduetan oinarritzen da, zeren egonkortasuna ulertzeko, prozesu eta jokabide sozioafektiboak bideratzeko eta antolatzeke arauen, sinesmenen, asmoen eta emozioen koherentzia kontuan hartu behar baita.

Autore askok diotenez, esperientzia berriak alde aurreko ereduarekin lotuta daude. Bikote-harremanetan, intimitatea, konpromisoa eta kartsutasuna oinarritzko elementuak baldin badira, erraz uler daitezke, atxikimendu-ereduak duen eragina, zeren, haurtzaroko atxikimendu-harremanetan finkatzen eta ikasten baitira intimitaterako edo konpromisoa hartzeko gaitasuna eta maitaleek erabiltzen duten kodea (elkar ukitzea, begiratzea edo laztantzea eta emozioak adieraztea eta ulertzea).

Datu horiek, barne-ereduen egonkortasuna frogatzen badute ere, ezin ditugu determinismoarekin (jaiotzatiko baldintzen arabera ezaugarriak gerora aldaezinak direla defendatzen duen irizpidearekin) lotu. Sroufe-k (1988) dioenez, atxikimenduaren teoriak ez du defendatzen amarenganako harremanak geroko garapen sozioafektiboa determinatzen duenik; aitzitik, hasierako harreman horren bidez, gizarte-garapena nolakoa izan daitekeen aurreikusi daitekeela aldarrikatzen du. Horregatik, Bowlby-k eredu horiek aktiboak direla esaten du, zeren, egonkorak izateko joera badute ere, aldatu egin baitaitezke, gerora, gurasoekin, bikotearekin edo beste atxikimendu-irudiren batekin izaten den harremanaren arabera. Hala ere, Sroufek (1988) dioenez, alde aurreko barne-ereduak aldatu egin daitezke, baina ez dira desagertzen.

## ■ Atxikimendua haurtzaroan

### Eskolaurrea

Bizitzako lehenbiziko urtea eta gero, atxikimendu-lotura ondo ezarri ondoren, haurrak atxikimendu-irudienganako independentzia lortzen hasten da, mugitzeko eta hitz egiteko gaitasunen eta adimen-gaitasunen bidez. Prozesu hori beti gatazkatsua izan ohi da, zeren tirabirak izaten baitira lehentasunei dagokienez. Horregatik, prozesu horretan, haurrak aurreratzeko zein atzera egiteko joerak erakusten ditu.

#### *Gurasoen intimitatean parte hartzeko gogoia*

Bi urtetik aurrera, atxikimendu-irudiarekin izandako harremanen, adimen- eta hizkuntza-gaitasunen eta ezarritako "harreman-ereduaren" bidez, haurrak gurasoen jokabideak aurreikus ditzake eta eskaerak hobeto egin ditzake. Ondorioz, helburuak ezar ditzake, helburuok lortzeko

bideak azter ditzake eta gurasoen egoeretara eta erantzunetara hobeto molda daitezke. Hau da, ekintza-plan malguagoa eta eraginkorragoa egin dezake.

Gaitasun berri horiei esker, haurrak, gurasoek intimitatea dutela eta intimitate hori eurentzat debekatuta dagoela konturatzen dira. Umeak ez du ulertzen gurasoek zergatik gela berean eta ohe berean lo egiten duten eta nolako harremana duten. Ama baten hitzetan, bere lau urteko semeak honako hau esan omen zuen minduta: "etxe honetan, bakarrik lo egiten duen bakarra neu naiz".

Horregatik, etapa honetan, sarri, haurrek gurasoen intimitatean parte hartu nahi izaten dute. Egoera normaletan, gurasoenganako lotura estua izaten denez, jokabide horren bidez, haurrak ez du gurasoekin lehiatu nahi izaten; aitzitik, biei edo parte hartzea eragozten dionari protesta egin nahi dio. Baina gurasoetako bat atxikimendu-irudia ez bada, eta, are gehiago, aldi berean, gurasoen artean gatazka badago, atxikimendu-irudia ez den hori etsai bihurtuko da.

### *Aldentzea*

Eskola-garaian, atxikimendu-irudiak gurasoak dira (ia beti ama izaten da irudi nagusia) eta irudi osagarriak, neba-arrebak eta gainerako senideak izan ohi dira.

Aldaketak astiro, baina etengabe sortzen dira. Adimen-gaitasun berriei eta atxikimendu-irudia itzultzearen ondoriozko esperientziari esker, haurrak hobeto onartzen du denbora laburrerako aldentzea. Dagoeneko kontaktu fisikoa ez da etengabea, ez eta hain estua, esploratzeko haurrak ez du atxikimendu-irudiaren alboan egon behar. Baina egoera atsekabeetan (adibidez, gaixorik dagoenean) edo haurrak aldentzea mehatxagarria dela pentsatzen duenean (ospitalean edo haur-eskolan sartzea, etab.), atxikimendu-jokabideak nabarmenki abiatzen dira eta, bizitzako lehenbiziko hilabeteetan bezala erreakzionatzen du.

Haurrek, atxikimendu-irudiengandik aldentzen direnean, lehenbizi protestatu egiten dute, gero jokabide anibalentea izaten dute eta, azkenik, moldatu egiten dira. Prozesu horrek argi erakusten du, atxikimendu-sistema martxan mantentzen dela. Zenbait aldentze-egoera (ospitaleratzea, umezurztegietan sartzea edo, neurri txikiagoan, eskolaratzea) mehatxagarriak dira haurarentzat eta, egoera horien eragina, neurri handi batean, aldentzearen baldintzen (iraupenaren, haurra norekin eta non gelditzen den, sexuaren, alde aurreko esperientzien, eskaintako arretaren, eta abarren) arabera bada ere, badira zenbait konstante:

a) *Protesta-fasea*: haurra bakarrik gelditzen dela konturatzen denean hasten da. Normalean, ordu batzuk irauten du, baina aste osoa ere iraun dezake.

Fase honetan, haurra atxikimendu-irudiak berreskuratzen saiatzen da, bilatzeko eta deitzeko jokabideen bidez: gogor negar egiten du, ihes egiten saiatzen da, zaratek estutasuna sorrarazten diote (atxikimendu-

-irudiak egindakoak direla uste izaten du). Estutasun hori adierazteko jokabide erregresiboak (erpurua xurgatzea, esfinterren kontrola galtzea, atzazalak jatea, etab.) eta ordezeko sintomak (gaueko izu-ikara, botaka egitea, dardara, janariari uko egitea, etab.).

Fase honetan, ez dute zaintzaile berrien arreta onartzen eta zaintzaileok ezin izaten dituzte haurrak kontsolatu. Batzuetan, laguntza eskaintzen dietenean, haurrek aurkako jokabidea erakusten dute

Fase honetan atxikimendu-irudiarekin kontaktua berreskuratzen badute, haurrek atxikimendu-jokabide ugari adierazten dituzte, ezezagunak gogorrago arbuiazen dituzte eta estutasun handiagoa erakusten dute berriro aldentzeko aukeraren aurrean.

b) *Anbibalentzia-fasea*: haurra atxikimendu-irudiengandik denbora luzeagoan (astebete eta hilabete bitartean) aldentzen bada, bigarren fase honetara pasatzen da. Fase honetan, protesta ez da hain bizia izaten eta zaintzaileenganako jokabide anbibalentea izaten dute.

Estutasun-adierazpenak nabariak dira oraindik: negar-zotinak, estutasun-espresioa eta ahulezia adierazten dituzte. Haurrak atxikimendu-irudiak berreskuratzeke itxaropena galdu egin duela dirudi, baina aldentzeagatik deprimituta jarraitzen du. Jokabide erregresiboak eta ordezeko sintomak areagotu egin daitezke. Hala ere, haurra, eskaintzen dioten laguntza onartzen hasten da, baina jokabide hori anbibalentea da, zeren, onarpenarekin batera, arbuioa ere adierazten baitute.

Fase honetan, haurrak, atxikimendu-irudia berreskuratzen duenean, ez du interesik adierazten edota aurkako jokabidea erakusten du. Atxikimendu-irudia arbuiazeko erreakzio hori (seguruenik, bakarrik uzteagatik aurka egiteko jokabidea da), haurrari kostatu egiten zaio gaintzea (aldenduta egon den denboraren arabera eta aldentzearen arrazoia ulertzearen arabera).

c) *Moldatze-fasea*: luzaroan aldentzen bada, azkenean, haurra moldatu egiten da egoera berrira. Estutasuna gaintu egiten du, eta, zaintzaileek jokabide egokiak erakusten dizkietenean, lotura afektibo berriak ezartzen ditu.

Fase honetan, aldentzeko arrazoi nagusia **haur-hezkuntzako zentroan sartzea izan ohi da**. Haur gehienek jasaten dute eta aldentze-egoerarik luzeena izan ohi da. Haur-hezkuntzak segurtasun emozionala asetzeaz arduratu behar du, zeren horixe baita bizikloko eta, batez ere, haurtzaroko premia psikologikorik garrantzitsuenak. Segurtasun emozionala, funtsean, atxikimendu-loturen, beste haurrekin duen harreman-motaren eta autoestimuaeren arabera da.

Funtsezko premia horri dagokionez, eskola kaltegarria edo onuragarria izan daiteke. Segurtasun-falta

eragin edo areagotu dezaketen elementuak honako hauek dira:

- Haurtzaindegia, leku arrotza den aldetik. Haurrak familia-giroan seguru sentitzen dira eta segurtasun hori galtzeko joera dute leku arrotzean edo pertsona ezezagunekin daudenean. Horren ondorioz, hasieran batez ere, segurtasun-falta larria jasan dezakete.
- Giro fisikoa desegokia izan daiteke haurrarentzat, eremuak ondo egokituta ez badaude edo zarata handia badago (sartzen eta irteten direnean eta jolas-orduan batez ere).
- Haur txikienean, beste haurrenganako elkarreragina sortzeko zailtasunak izan ditzakete, batez ere asko badira edo etengabe harreman gatazkatsuak izaten badituzte. Batzuentzat talde handi batean dauden lehenbiziko aldia izaten da.
- Proposatzen zaizkion jardueren eraginez (berriak, arautuak, taldekoak edo aspergarriak direlako), zailtasunak eta segurtasun-falta sor daitezke. Askotan, helduek ume askorentzat antolatutako zereginak egiten dituzten lehenbiziko aldia izaten da.
- Haur askorentzat, haur-eskolan sartzea, atxikimendu-irudiarengandik aldendu eta leku arrotzean eta pertsona ezezagunekin denbora luzean egoten diren lehenbiziko aldia izan ohi da. Aldentze hori biziki kaltegarria izan daiteke haurrak abandonatuta sentitzen badira edota, behar izanez gero, atxikimendu-irudia berreskuratzea ezina dela sentitzen badute.
- Haurrek, denboraren kontzeptua menderatzen ez dutenez, ezin izaten dute atxikimendu-irudiaren itzulera lasai itxaron, eta hori ere gainerako eragozpena izan daiteke txikienez.
- Askotan, zentroak oso urruti egoten dira (batzuetan, haurrek autobusez joan behar izaten dute), eta ondorioz, haurrek ezin izaten dute buruan lekuaren mapa egin, eta ez dute jakiten etxetik edo atxikimendu-irudiengandik zein urruti dauden, eta horrek ere estutasuna sorrarazten du haurrengan.
- Etxean dituzten jateko, garbitzeko, lo egiteko edo jolasteko ohiturak aldatzea. Dena berria delako ere segurtasun-falta sor daiteke.
- Gauza gehienak dagoeneko ez dira haurrarenak, berarenak eta denenak dira.
- Zereginetan besteekin lehiatzea, askotan zaintzaileen gogoz kontra izaten bada ere.
- Hezitzaileen aldetik diskriminatuta senti daitezke (lehenetasuneko tratua egiazkoa izan daiteke edo ikasleek eurek suma dezakete, egia ez izan arren)

- Beste haurrenganako enpatia adierazteko joera, batez ere, negarrak eta protestak ugariagoak diren lehenbiziko egunetan.

Alderdi horiek guztiek segurtasun-falta eta estutasuna sorraz ditzakete, batez ere, lehen egunetan edo lehen asteetan edota egokitzapen-aldian.

Arrisku horiek saihesteko eta segurtasun emozionala sustatzeko, besteak beste, honako neurri hauek har daitezke:

- Haurra, lekura, hezitzaileengana, beste haurrengan alde aurretik ohitzea. Hori lortzeko era asko daude: izena emateko egunean haurra eskolara eramatea, eskolan hasi baino lehen, beste haurrekin eta gurasoekin jaia antolatzea, etab.
- Ikasleak, denak batera eskolaratu beharrean, taldeka eskolaratzea.
- Denborari dagokionez ere, hasieratik egun osoan eskolan egon beharrean, mailakatuta eskolaratzea.
- Lehenbiziko egunetan hurrarekin familiakoren bat egotea.
- Atxikimendu-irudiarekin, telefonoaren bidezko kontaktua mantentzea. Lehen egunetan telefonoa maizago erabil daiteke, eta gero, hezitzailearen ustez beharrezko denean erabiliko da.
- Talde txikiak sortzea (hiru urteko haurrei dagokienez, hamar haur inguruko taldeak eta gero, gehienez, hamabosteko taldeak).
- Zarata handiegia edo talde handietan gora eta behera ibiltzea saihestea, batez ere, sarreran, irteeran edo patioan daudenean.
- Ariketa esanguratsuak, laburrak, anitzak, borondatezkoak edo talde txikian egiteko ariketak proposatzea.
- Eremua eta objektuak eroso antolatzea, debekurik gabe eta abar.
- Gauza pertsonalak gordetzeko eremua (kaxa edo kutxatila) sortzea, haurrak pribatutasuna mantentzea.
- Harreman gatazkatsuetan sor daitezkeen gehiegikeriak (beti haur bera galtzen ateratzea) saihestea.
- Hezitzaileek jarraitutasuna mantentzea.
- Eskolatik kanpo ere eskolako lagunekin ibil dadila gomendatzea. Harreman horiek bereziki zaindu behar dira oporretan edo egun berezietan (urtebetetzeetan, etab.). Helburua haurrek,

gurasoek eta hezitzaileek osatutako bizi-komunitatea sortzea da.

- Gurasoei etengabe informazioa ematea. Horretarako, bilerak antola daitezke, haurrak eskolara eramaten dituztenean gurasoekin elkarrizketa informalak izan daitezke edota umeak aldean eramango duen ohar-koadernoan erabil daitezke (batez ere txikia denean).
- Autoestimua bultzatzeko hainbat neurri:
  - Haurra bere gorputz-itxura onartzera bultzatzea, itxura hori edonolako izanda ere.
  - Aniztasunak (sexua, arraza, minusbalotasuna, etab.) onartzera bultzatzea.
  - Deskalifikazioak edo konparazioak saihestea. Adibidez, "dena gaizki egiten duzu" edo "zure lagunak hobeto egiten du" eta antzeko gauzak esan beharrean, "hori hobeto egin dezakezu" esatea.
  - Ondo egin ditzakeen zereginak proposatzea. Zereginak haurraren gaitasunaren arabera egokitu behar dira, haurrak, noizean behin arrakasta izan dezan.
  - Autoestimua, gizarte-trebetasunak eta trebetasun pertsonalak sustatzeko programak sustatzea.


Hautzaro osoan, hezitzaileek arreta berezia ipini behar dute, haurren tratu txarra detektatzeko. Hezitzaileek, haurrekin etengabeko kontaktua mantentzen badute eta gurasoekin harremanak sarri izaten badituzte, familia-egoeraz eta tratu txarrak eragiteko errez ohar daitezke.

Azaldu duguna, haur txikiak onartzen dituzten egoitzei dagokie, irizpide guztiak baliagarriak ez badira ere. Familia-urritasunak dituzten haurrengan are garrantzitsuagoa da autoestimua sustatzea eta trebetasun pertsonalen eta gizarte-trebetasunen programetan parte hartzea eta adiskideak egitera bultzatzea.


### *Neba-arrebenganako lehia eta atxikimendua*

Neba-arrebaren bat jaiotzen denean, familiako harreman-sistema aldatu egiten da eta haurraren gurasoenganako atxikimendu-jokabideak eta jaioberriaren gurasoenganako lehia-jokabideak areagotu egiten dira.

Haurra konturatu egiten da, hirukotea (ama, aita eta bera) laukote (ama, aita, neba-arreba eta bera) bihurtu dela. Horixe da etengabe aldatzen den familia-egoeran izaten den egoerarik garrantzitsuena. Aldaketa horietan, halaber, alderdi ugari eragiten dute, besteak beste, haurren sexuak, gurasoen adinak, gurasoen harremanak, gizarte-maila, neba-arreba jaiotzen denean haurrak duen adina, seme-alaben kopurua, amak etxetik kanpo lan egitea, gainerako senideak (aitona-amonak, osaba-izebak, etab.). Baina, aldagai horiek eragin ditzaketen aldaketaz aparte, badira aldaketa orokorrak:

a) **Elkarrekintza sortzeko aukerari dagozkionak:****Lehen**

- Biren arteko hiru harreman
- Hiruren arteko harreman bakarra

**Orain**

- Biren arteko sei harreman
- Hiruren arteko lau harreman
- Lauren arteko harreman bakarra

b) **Haurren eta amaren arteko elkarrekintzari dagokionez:**• **Amak:**

- Arreta gutxiago eskaintzen dio, ordura arte haurtxoa izan den umeari.
- Haurra nagusiagozat jotzen du.
- Gehiago eskatzen dio eta maizago zigortzen du.

• **Haurrak:**

- Amarenganako atxikimendu-jokabideak eta kontrako erreakzioak areagotu egiten ditu.
- Neba-arrebarenganako jeloskortasun-sentimenduak eta –jokabideak adierazten ditu.
- Egoera berriagatik protestatzeko ordezeko sintomak azal ditzake: janaria edo haurtzaindegia arbuiztea, botaka egitea eta beste somatizazio batzuk.

Neba-arreba berriarenganako jokabideak anbibalenteak izan ohi dira (onartu/arbuiatu, laztandu/eraso egin, etab). Jokabide anbibalente horrek, alde batetik, neba-arrebarenganako jeloskortasuna eta bestetik atxikimendua adierazten du.

Jeloskortasuna nabarmendu egiten da neba-arreba oinez edo hitz egiten hasten denean, berriz ere gurasoen eta ingurukoaren arreta erakartzen duelako edota bere jarduerak eragozten hasten delako.

Hala ere, astiro-astiro, neba-arreben artean, gurasoengandik aparteko azpisistema sortzen hasten da. Sistema hori, gehienetan, neba-arreben arteko atxikimendu-harremanetan oinarritzen da. Haurra, atxikimendu-irudiak neba-arrebarenak eta bereak direla eta horregatik ez dituela galtzen konturatzen da; aldi berean, seguru dago estutasun-egoeretan neba-arrebarengandik laguntza lortuko duela. Une horretatik aurrera, harremanak, askotan, gatazkatsuak izan daitezkeen arren, sortzen den loturak atxikimendu-sistemaren ezugarri nagusiak ditu.

Ainsworth-en iritziz (1989), neba-arreben artean benetako atxikimendu-harremanak sortzen dira:

- Neba-arreba nagusiek, askotan, amak eskaintzen duenaren antzeko arreta eskaintzen diete txikiei.
- Neba-arreba txikiek (3-4 urtekoek, ama ez dagoenean, elkarri lagundu ohi diote eta elkar zaindu ohi dute.
- nguru ezezagunean edo estutasun-egoeretan, neba-arrebak elkarren segurtasun-oinarri izan ohi dira.
- Atxikimendu-irudia denboraldi laburrerako aldentzen denean, neba-arreba duten haurrengan estutasuna murriztu egiten da.
- Atxikimendu-irudia galtzen dutenean, neba-arrebaren laguntza izanez gero, hobeto jasaten dute dolua.
- Hezitzaile guztiek dakitenez, neba-arrebak aldi berean errazago eskolaratzen dira.
- Bizitzaren azken zikloan, bietako bat bakarrik gelditzen denean, elkarrekin bizitzeko edo elkarri laguntzeko joera dute.
- Haurrek, nerabeek zein helduek neba-arrebetako bat hartu ohi dute atxikimendu-irudizat.

Aipatutakoa egiaztatzen duten arrazoi ugari daude. Hasieran, neba-arrebak elkarrekin egon ohi dira ia etengabe, eta, ondorioz, familiako esperientzia emozional asko elkarrekin bizi ohi dituzte, askotan neba-arreben irudi afektiboaren onura jasotzen dute eta elkar maitatzeko eta elkarri laguntzeko hezten dituzte. Horrez gain, gurasoek eta gizarteak neba-arreben arteko solidaritatea beharrezkotzat jotzen dute eta solidaritate hori sustatu egin ohi dute; izan ere, gurasoak eta gero, neba-arrebak dira gaixotasunean edo estutasun-egoeran laguntza gehien eskaintzen dutenak. Azkenik, bizirik irauteari dagokionez, neba-arrebari laguntzea, norberarenean antzeko geneak ugaltzea ziurtatzeko era da; eta, eginkizunari dagokionez, elkarri laguntzea kanpoko arriskuetatik babesteko era da.

## Atxikimendua erdiko haurtzaroan

4-6 urtetik aurrera, haurrek, normalean, jeloskortasun-egoera pasatu dute eta, aldi berean, hitz eginez komunikatzeko, gizarte-harremanak hedatzeko eta euren burua kontrolatzeko gaitasunak garatu dituzte. Ondorioz, eskola-ikaskuntzarako eta, gizarteari dagokionez, atxikimendu-irudiekin harreman harmonikoak eta onuragarriak sortzeko egoerarik egokienean daude. Normalean, pubertarora arte haurrek harreman onak izan ohi dituzte atxikimendu-irudiekin, zeren, bizitzako lehenbiziko hilabetetatik, gurasoen baldintzarik gabeko irudi eraginkorra eraiki baitute: "gurasoek maite naute, gurasoek onartu egiten naute, gurasoek badakite nola babestu eta nola zaindu behar nauten". Haurrek oso gustuko dute gurasoekin egotea, jolastea, hitz egitea edo bidaiatzea. Gurasoen balore-sistema, arauak eta gizartean funtzionatzeko era zalantzarik gabe onartzen dituzte. Haurrek badakite familia jakin baten parte direla, gurasoek maite dituztela eta premiak asetzen dizkietela, gurasoekin ondo komunikatzen dira, gustura egoten dira, jolas egiten dute, etab. Familia aberastu egiten da, oraindik eraginkorra den aitona-amonen familia-sistemarekin.

Familia-sistemako etaparik harmonikoena eta onuragarriena da, familiako kide guztientzat. Harmonia hori hausten duten egoera ohikoenak honako hauek dira: gurasoen arteko gatazkak, gurasoak banantzea, familiakoren bat hiltzea eta haurrak eskolan porrot egitea.

Senar-emazteen arteko arazoak edo gurasoak banantzeak gatazka emozional larria eragiten du adin honetako haurrengan, zeren ez baitute ulertzen gatazka horiek familia-loturan eragina izan dezaketarik edota lotura hori hautsi dezaketarik. Banantzea, ondoriozko gatazkak eta hitz eta jokabide erasokorrak, haurren tutoretza lortzeko borroka, etab., haurrak amarekin edo aitarekin duen lotura hondatzen duten alderdiak dira, eta haurrengan erabat abandonatuko duten beldurra sorrarazten dute. Aldi berean, gatazka horien ondorioz, haurrak familia-loturak ez direla hain sendoak pentsatzen du.

Familiako edo hurbileko pertsona hiltzen denean, haurrak heriotzaren kontzientzia hartzen du eta horrek, bera edo maite dituen pertsonak hiltzeko beldurra sorrarazten dio. 6-8 urte bitartean, normala da umeek heriotzaren kontzientzia edo hiltzeko beldurra nolabait adieraztea.

Eskola beharrezko eta ezinbesteko erakunde bihurtu da umeentzat. Eskola-integrazioan eta behin eta berriz egiten diren ebaluazioetan arrakasta lortzea, arriskuen aurka babesteko faktorea da eta, aitzitik, porrota eta, gutxienez, atxikimendu-irudi bat ez izatea arrisku-faktoreak dira (Lopez, 1995).

Atxikimendu-irudien eginkizuna funtsezkoa da gerta daitezkeen arazo horietan. Gurasoak banantzeari dagokionez, aitak eta amak argi utzi behar diote umeari, bereganako lotura ez dutela hautsiko eta, banandu arren, haurrak duen aitaren edo amaren irudia ez dela hondatu behar. Heriotzari dagokionez, familiakoen heriotza ez da

tabutzat jo behar; aitzitik, une jakin batzuetan, atxikimendu-irudiek umeekin hitz egin behar dute eta bizitza ez dela betiko esan behar diete, bizitzaren zentzu positiboa transmititu behar diete, eta beti gurasoen laguntza izango dutela ziurtatu behar diete.

Azkenik, eskolako errendimendua edonolako izanda ere, gurasoek baldintzarik gabe onartzen dituztela sentitu behar dute haurrek eta, eskolan porrot egiten badute, gurasoek, laguntzeaz gain, pertsona bakoitza bakana dela ikusarazi behar diete. Funtsezkoa da, nota onekin edo txarrekin, seme-alabentzako ilusiozko proiektu bat eraikitzea.

Bestalde, eskola-sisteman integratzearen ondorioz, haurrek, nahitaez, denboraldi laburretan atxikimendu-irudiengandik aldentzea onartzen ikasiko dute (Lopez, 1995) eta beste haurrekin harremanak sortuz, lagunaren arteko loturak eraikiko dituzte.

## 2.5. Garapen afektiboaren eta ezagutzaren garapenaren arteko elkarreragina

Gizakiongan, afektibotasuna eta ezagutza ez dira elkarrekiko inolako loturarik gabe funtzionatzen duten alderdi independenteak. Argi dago, azterketa egiten denean, estutasun handia sentitzen bada, ezagutza-errendimendua txikiagotu egiten dela. Jakina da, halaber, egoera jakin batek beldur bizia eragiten duenean, egoera hori errazago gogoratzen dela. Beraz, ezagutzaren eta emozioen artean elkarreragina dago.

Duela gutxira arte, ezagutza eta emozioak elkarrekiko independenteak zirela pentsatzen zen, eta bien arteko lotura bakarra emozioek pertsonaren adimen-jokabidea eragozteko zuen eragina zela.

Are gehiago, urte askotan, emozioek ezagutzak baino garrantzi txikiagoa zutela pentsatu izan da. Ikuspuntu arrazionalistaren eraginez, urte askotan, gizakiaren ezaugarriak ezagutza- eta adimen-gaitasunen arabera ezarri izan da. Emozioak garapen kognitiboaren oztopotzat jotzen ziren, hots, une erabakigarrietan ezagutzaren garapena oztopotzen zuen eta jokabidean eragina zuen zerbait ziren. Duela gutxira arte, pertsona adimentsuaren jokabidea desegokia zenean, emozioen maltzurkeriaren eraginez zela pentsatu ohi zen.

Maiz, emozioak pasibotzat jotzeko iritzi okerra azaldu izan da. Emozioak esperientzia subjektiboak eta buru-barnekoak, hau da, pertsonak besterik gabe sentitzen dituenak, ez izan arren, pasibotzat jo izan dira. Hau da, emozioak jarduerarik ez zuela eragiten eta estimulu jakin batzuen arabera pertsonak sentitzen zuen zerbait zela pentsatu ohi zen.

Orain, badakigu, gehienetan, emozioek jarduera eragiten dutela eta gizakia erabaki bat hartzera bultzatzen dutela. Beti ez da hori gertatzen, zeren, adibidez, beldurrak edo tristurak, egoera jakin batzuetan, zenbait jokabide geldiarazi edo desagerrarazi egiten baitituzte. Baina, jokabide jakin batzuk eragitea edo geldiaraztea inguruan eragiteko erak dira. Eta, zentzu horretan, emozioak ez dira, ez pasiboak, ez eta pertsona bakoitzaren barneko esperientzia hutsak ere.

Emozioei buruzko ezjakintasun horren arrazoia, izan ere, emozioak gutxi ikertzea eta, batzuetan, zeharka ikertzea izan da. Askotan emozioari buruzko ikerketak zirelakoan, emozioak ezagutza ikertzeko baliabide gisa baino ez ziren ikertzen, zeren ezagutza garrantzitsuagotzat jotzen baitzen.

Esandakoaren adibide, hilabete gutxiko haurren amiltzeko beldurrari buruzko ikerketak dira. Esperimentu horietan, haurra bi zatitan banatutako kristalezko mahai baten gainean lau hankatan ibiltzen jartzen zen. Mahaiaren parte batean, lurraren parean, lauki zuriz eta beltzez osatutako plantxa jartzen zen. Beste zatian, plantxa bera, mahaiaren kristalera itsatsita jartzen zen. Mahaiaren erdian zegoen haurrak sakontasuna hautematen zuen, hau da, amiltzeko sentsazioa zuen. Haurren % 90ak, lau hankatan ibiltzen zirenean, ez ziren beldurra eragiten zien mahaiaren eremura joaten.

Esperimentu horietan, amiltzeko beldurra eta sakontasun-sentsazioa agertzen badira ere, ez zen beldurra ikertzen. Beldurra, haurrak sakontasuna hautemateko zuen gaitasuna neurtzeko erabiltzen zen. Asmoa ez zen, emozio horren funtzionamendua ulertzea, benetako asmoa, haurrak sakontasuna hautematen zein adinekin hasten ziren jakitea zen. Horren ondorioz, haurrak jokabidea aldatzen zuen, adibidez, beldurraren eraginez, amiltzeko arriskua eragiten zuen eremua saihestuz.

Emozioei buruzko ikerketa gutxi egitearen arrazoia, emozioek prestigiorik ez izateaz gain, gaiak berak duen zailtasuna da. Zaila da emozioak objektiboki aztertzea eta neurtzea. Norbaitek pozik dagoela adierazten duenean, nola jakin daiteke pozik sentitzen den beste pertsona batek baino poz handiagoa edo txikiagoa duela?

Haurtxoen kasuan, zailtasun hori areagotu egiten da, zeren emozioa adierazteko, ezin baitute hizkuntza erabili sentitzen dutena zehazteko. Beraz, sentitzen dutena interpretatu egin behar da, eta, ondorioz, objektibotasuna galdu egiten da.

Laburbilduz, emozioak urte askoan aintzakotzat hartu ez badira ere, eta ikerketetan ezagutzak lehentasuna izan badu ere, orain badakigu emozioen eta ezagutzaren arteko elkarreragina dagoela. Hona hemen elkarreragin hori azaltzen duten zenbait adibide:

- 8 hilabete inguruan, haurraren aldaketa emozionalak eta gaitasun kognitiboaren aurrerapen garrantzitsuak (oroimenari eta pertzepzioari dagozkienak) aldi berean sortzen dira. Unitate honetan ikusi dugunez, adin honetan atxikimendu-irudiak aldentzearen ondoriozko estatusuna adierazten dute eta ezezagunenganako beldurra sortzen da. Adin berean, pertzepzioari eta oroimenari dagozkien aldaketei esker, haurrak gurasoak bereizteko eta gogoratzeko gaitasun handiagoa du, eta hori, erabakigarria da aldentzearen ondoriozko estatusuna sortzeko. Pertzepzioa eta oroitzapena erabakigarriak dira, halaber, norbait arrotza dela jakin dezan eta ezezagun horrenganako beldurra sor dadin.
- Haurtzaroan, emozioak erregulatzeari, emozioak ulertzeari eta enpatiari dagokienez izaten diren aurrerapenak, estu lotuta daude ezagutza-arloan izaten diren aldaketekin. Ezagutzaren bidez lortzen den norbere buruaren kontzientzia, oinarritzkoa da beste pertsonen emozioak ulertu ahal izateko.

Atal hau amaitzeko, garapen afektibo egokiak garapeneke beste arloetan, batez ere adimenaren arloan, izan daitezkeen zailtasunak modulatu egiten ditu. Garapenaren beste arlo batzuetan izan daitezkeen zailtasunak handiagotu edo txikiagotu egingo dira, haurraren garapen emozionalaren arabera. Atxikimendu-harremanak haurraren garapenean sor daitezkeen oztopoei egoki aurre egitea ziurtatzen du, zeren eragozpen horiek ez baitira hain kaltegarriak izango haurrarentzat eta familiakoentzat.

Adibidez, Anderrek eta Paulak nekez irakurtzen eta idazten dute. Biek zailtasunak dituzte arlo horietan, baina Ander, maitasuna, onarpena eta segurtasuna nagusi diren inguruan hazi da eta, ondorioz, behar duenean laguntza eskatzeko eta frustrazioa onartzeko gai den haur segurua da. Paularen gurasoak, ordea, zorrotzegiak dira eta ez dira oso maitekorak. Paula ez da oso irekia eta gutxi hitz egiten du, eta porroten bat jasotzen duenean, berehala desanimatu egiten da eta ez du berriz saiatu nahi izaten. Arlo afektiboan bi haurron artean dauden desberdintasunen ondorioz, Anderrek Paulak baino baliabide gehiago ditu irakurtzen eta idazten ikasteko zailtasunei aurre egiteko. Haur horien garapen kognitiboa eta ondoriozko aurrerapenak eta

## Bibliografia

(1) WALLON, M. Honako lan honetan aipatua: CASTELLVI, P. *Psicologia del desenvolupament*. Pòrtic.. Bartzelona, 1997. 56. or.



## Ariketak

1. Azaldu zer diren, zure ustez, *emozioa* eta *sentimendua*. Esan bakoitzaren adibide bat.
2. Unitate honetan emozioek gure gizartean duten fama txarra eta prestigio-falta aipatu dira. Ados al zaude iritzi horrekin? Erantzunean arrazoiak azaldu, adibideak erabiliz.
3. Definitu zure hitzekin honako kontzeptu hauek: *atxikimendua*, *atxikimendu segurua*, *saiheste-atxikimendua*, *estutasun-atxikimendua* eta *atxikimendu nahasia*.
4. Ohikoa da, kalean, 2 urte inguruko haurrak haserre, negarrez, oihuka edota euren burua lurrera botatzen ikustea. Erlazionatu jokabide horiek unitate honetan ikasi duzunarekin. Nola azalduko lituzkete jokabide horiek Piaget-ek, Freud-ek eta Wallon-ek?
5. Emozioak gordetzea ez da erraza, ez haurrarentzat, ez eta helduarentzat ere. Gogoratu emozioak adierazteko gauza izan ez zinen azken aldia. Zer gertatu zen? Zergatitik gertatu zen? Zer gertatu zen gero?
6. 3 laguneko taldeetan, 3 urteko umeekin emozioen gizarte-adierazpena lantzeko ariketa prestatu. Ariketa-aren helburuak, lekua eta iraupena zehaztu, beharrezko materiala bildu eta ebaluazioa egiteko era ezarri.

## 2.1 Jarduera

### Lehenbiziko harreman afektiboen autobiografia

#### Helburuak

- Norbere buruaren ezagutza, haurtzarora eta lehenbiziko lotura afektiboak sakon aztertzea.
- Norbere oroitzapenak unitate honetan ikasitakoarekin erlazionatu.

#### Garapena

- Banaka, idatziz, bakoitzaren haurtzarorearen autobiografia egin behar da. Autobiografia horretan, bizitako zailtasunen bat eta egoera-atseginen bat azaldu. Gai pertsonalak direnez, ikaslearen esku uzten da azalpenetan gehiago edo gutxiago sakontzea.
- Lana idatziz entregatu behar da eta, gehienez, 4 orrialdekoa izango da. Ordenagailuz, idazmakinez zein eskuz egin daiteke.

#### Ebaluazioa egiteko irizpideak

- Idatzitakoaren edukia ez da ebaluatuko. Aurkeztu den, ezarritako epean entregatu den, edukia ulergarria den eta txukun aurkeztuta dagoen ebaluatuko da.

## 2.2 jarduera

### Emozioari buruzko ipuina

#### Helburuak

- Haurren emozioei eta garapen afektiboari buruz ikasitakoa laburtzea.
- Prestakuntza-zikloko beste irakasgaietan (hizkuntza plastikoan eta idatzizko hizkuntzan) ikasitako ezagutzak eta trebetasunak erabiliz, adierazpen emozionalari buruzko ariketa praktikoa egitea.

#### Garapena

- Haurren emozioei buruzko ipuina egin behar da. Gelako ikasle guztien artean, 4 laguneko taldeetan banatuta, ipuin bakarra egin behar da eta talde bakoitzak dagokion emozioa aztertuko du.
- Gelako ikasle guztien artean, honako alderdi hauek zehaztuko dira:
  - Landuko diren emozioak eta emozio bakoitzaz zein talde arduratuko den.
  - Emozioak ipuinean zein ordenatan agertuko diren.
  - Protagonistaren ezaugarriak: izena, adina eta sexua.
  - Pertsonaia osagarrien ezaugarriak.
  - Ipuina norentzat izango den: zein adinetako umeentzat den zehaztu behar da.
  - Ipuinaren formari dagozkion alderdiak: marrazkien tamaina, paper-mota eta orrien antolaketa, emozio bakoitzari dagozkion orrialdeen kopurua.
  - Erabiliko den plastika-teknika: koloreak, pintura-mota, argizariak...
  - Alderdi horiek adostu ondoren, talde bakoitzak emozio jakin bat landuko du. Hasierako proposamena egingo da gelako ikasle guztien aurrean, argudioa, testua eta marrazkiak azaltzeko.
  - Proposamen bakoitza eztabaidatu egingo da eta beste taldeen iradokizunak kontuan hartuko dira, lana ahalik eta aberatsena izan dadin.
  - Gero, lana egiten hasiko dira. Talde bakoitzak dagokion ipuinaren partea bukatzen duenean, gainerakoekin bilduko da eta, azkenik, xehetasunak (azala, kontraportada, izenburua...) bukatuko dira.



#### Iraupena

- 6 ordu, gutxi gorabehera. Iraupena luzeagoa edo laburragoa izan daiteke, erabiltzen den teknikaren eta ipuina gehiago edo gutxiago lantzearen arabera.

#### Ebaluazioa egiteko irizpideak

- Lehenbizi, lanean parte-hartzea ebakutuko da. Saioen % 50ean parte hartzen ez bada, jarduera ez da gaindituko. Errekuperatzeko, ikasleak antzeko bakarkako lana aurkeztu beharko du eta notaren % 50 baino ez du lortuko.
- Hutsegiteak % 50 baino gutxiago badira ere, ikaslearen notan azalduko dira.
- Lana nola egin den ere ebaluatuko da. Horretarako, egunero, saioa bukatu ostean, taldeek segimendu-orria entregatuko dute (eranskineko 1. eredua). Lana bukatzen duenean, ikasle bakoitzak dagokion autoevaluazio-orria beteko du (eranskineko 2. eredua).



# Eranskina

## 1. eredua. Segimendu-orria

| Data eta sai-<br>ra etorritakoak | Egindako<br>jarduerak | Sortutako<br>arazoak | Arazoak nola<br>konpondu diren | Hurrengo saiorako<br>materialak eta gaiak |
|----------------------------------|-----------------------|----------------------|--------------------------------|---|
|                                  |                       |                      |                                |   |

**Ikasleen oharrak:**

**Irakasleen oharrak:**

## 2. eredua. Taldean egindako lanaren autoebaluazioa. Gurutzea idatzi zure portaerarekin bat datorren erantzunean.

|  | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|--|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| Lana antolatzen eta planifikatzen parte hartu dut            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Zereginak sasoiz hasten eta bukatzen ditut                   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Taldeko eztabaidetan parte hartzen du                        |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Zailtasunak daudenean, adostasuna bilatzen saiatzen naiz     |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Eztabaidak eta akordioak apuntatu egiten ditut               |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Neure mugak eta gaitasunak ezagutzen ditut                   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Behar izanez gero, lagundu egiten diet taldeko beste lagunei |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Erraz neureganatzen ditut ikaskideen egoerak                 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Ustekabeei aurre egiteko era baikorra dut                    |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| Inplikatu egiten naiz adostutako lanean                      |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |

Oro har, taldean honako eginkizun hau bete dut:

**1. Aitzindaria** **4. Taldekide eragilea**

**2. Moderatzailea** **5. Ikuslea**

**3. Idazkaria** **6. Beste zenbait**

**Nire lankideen alderdi positiboak honako hauek dira:**

**Lanaren balorazio orokorra, oharrak eta iradokizunak:**

## 2.3 jarduera

### Pelikula: “Yo soy Sam”

#### Fitxa teknikoa:

*Herrialdea:* AEB

*Jatorrizko izenburua:* I am Sam

*Bertsio bikoiztua*

*Zuzendaria:* Jassie Nelson

*Antzezleak:* Michele Pfeiffer, Sean Penn

#### Argumentua

Sam (Sean Penn), bere alabatxoaren tutoretza lortzeko lehiatu beharko duen adimen urriko pertsona da. Auzian, abokatu ospetsuak defendatuko du (abokatuaren papera Michel Pfeiffer-ek egiten du). Hasieran, abokatuak ez da Sam-en kasuaz interesatuko, eta hotz agertuko da. Baina abokatuak, jokabidea aldatu egingo du, Sam ezagutu eta honek bere alaba nola maite duen eta aita izateko eskubideak defendatzeko duen grina ikusi ondoren. Pelikulako musika aipagarria da: Beattles taldearen kanta klasikoak dira.



#### Jarduerak

Lehenbizi banaka egin behar dira, eta, gero, ikasgelan bateratu egingo dira.

1. Sam eta bere alaba Lucy-ren arteko harremana deskribatu. Zein atxikimendu-mota du Lucy-k aitarenganako?
2. Lucy-ren atxikimendu hori Rita-k (abokatuak) bere semearekin duenarekin konparatu. Zein da hobe? Zergatik?
3. Deskribatu eta azaldu zapata-dendako eszena. Zein emozio eragin dizkizu?
4. Lucy aitarengandik banantzeko erabiltzen diren argudioetako bat honako hau da: Sam-ek, alabaren urtebetez ospatzeko jaietan ezin izan zituen emozioak kontrolatu eta biziki haserretu zen Connor-ekin, alabaren laguntxoarekin. Argudio egokia al da hori aita eta alaba banantzeko? Zergatik?
5. Beste eszena batean, aurrekoaren antzeko egoera agertzen da: Ritak, abokatuak, ezin ditu emozioak kontrolatu. Gogoratzen al duzu eszena hori?
6. Ia amaieran, Sam-ek bere iritzia ematen du, alabari behar duen guztia ezin emateari buruz. Gogoratzen al duzu zer dioen?
7. Zer iruditzen zaizu amaorde izango denaren erabakia?
8. Azaldu Lucy-ren hazkuntzan auzokoak duen eragina.
9. Baloratu, auziaren erabakian zerbitzu eta laguntza sozialek duten eginkizuna.
10. Pelikulak planteatzen duen gaietako bat honako hau da: zer da garrantzitsuagoa seme-alaben hezkuntzan, ezagutza ala emozioa? Sam-en iritziak, aita izateko konstantzia, pazientzia eta maitasuna behar dira. Zein da zure iritzia?
11. Lucy aitarekin edo beste familia batekin bizitzea erabakitzea zure esku balego, zer erabakiko zenuke? Erantzunean arrazoiak azaldu.